

KIROL ESPARRUAN EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNA SUSTATZEKO
PLANA

Egungo egoeraren azterketa

2013ko azaroa

	AURKIBIDEA	1.
or.	Testuinguruan kokatzea	3
2.	Emakumeen eta gizonen presentzia kirolaren arloan	4
2.1.	Eskola-kirola	4
2.2.	Kirol-irakaskuntzak	10
2.3.	Jarduera fisikoa-aisiakoa	13
2.4.	Kirol federatua	17
2.5.	Goi-mailako kirola	21
3	Emakumeen eta gizonen parte-hartzea kirolaren arloan	25
3.1.	Kirolaren elkarte-egitura publikoa	25
3.2.	Kirolaren elkarte-egitura publikoa	27
4.	Emakumeek eta gizonek kirolaren arloko baliabideetara jotzeko duten aukera eta horien kontrola	29
4.1	Diru-laguntzak	29
4.2	Bekak	34
4.3	Enplegua eta profesionalizazioa	37
4.4.	Emakumezkoen kirolaren tratamendua komunikabideetan.	38
4.5	Denboraren erabilerak	41
4.6	Zaintza	42
4.7	Osasuna	42
5.	Sexu-jazarpena eta -abusua	44
6.	Ondorioak eta hobetzeko identifikatutako alderdiak	45
	Laburpena	61
	Eranskina; Taulen eta grafikoaren aurkibidea	66

Kirol-arloan, emakumearen presentzia eta parte-hartzea berandu eta zailtasun handiak gaindituta etorri da. Egun ere, beren presentzia gizonena baino txikiagoa da, bai jolasezko nahiz lehiatzeko kirolean, bai kirol profesionalean. Halaber, emakumeen presentzia txikiagoa da kirol-sistemaren egituretan. Beste esparru batzuetan bezala, kirolean ere hainbat traba esplizitu eta inplizitu gainditu behar izan dituzte emakumeek; alegia, desberdintasuna sorrarazi duten gizarte- eta kultura-estereotipoen ondoriozko aurreiritziak.

Desberdintasun horiek guztiak gainditzeko jarraitzeko, funtsezkoa da berdintasunari buruzko lege-aginduak behar bezala betetzea. Lege-agindu horiek, besteak beste, honakoak dituzte hizpide: botere publikoen betekizuna da emakumeen ahalduzko sustatzea, hala nola balio-aldaketa eragitea, emakumeek egindako kirola sustatu eta aintzatezea, zenbait kirol-jardueratarako gizonak eta emakumeak heltzea oztopatzen edo eragozten duten trabak gainditzea, erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen presentzia areagotzea, kirola sustatzeko programa publiko guztietan genero-ikuspegia txertatzea, sexu-bereizkeria dakarten kirol-jarduerak debekatzea, eta, oro har, kirol-arloari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eragozten duten traba guztiak deuseztatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak, Jon Redondok, 2013ko apirilaren 8an Legebiltzarrean eginiko agerraldian, Zuzendaritzaren ardatz estrategiko gisa definitu zuen kirol-arloan berdintasuna lortzea, eta, horretarako, legegintzaldiaren helburu gisa kirolean emakume eta gizonen berdintasunerako plana iragarri zuen. Planaren bidez, Kirol Zerbitzuak gaiaren inguruan jarraituko duen estrategia ezarriko du eta bitartekotza publikorako beharrezko helburuak eta ekintzak ezarriko ditu.



Esku hartzeko beharra kirol-arloko berdintasunaren diagnostiko batean oinarritu beharko da, eta horren inguruan identifikatu ahaliko dira hobekuntza-arloak. Jarraian, sektorean emakume eta gizonen egoeraren inguruko informazioa jasotzen duen diagnostikoa ekarri da, eta hori izango da esku-hartzea gidatuko duena.

2.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA KIROLAREN ARLOAN

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuko 10.36 artikulua arabera, eskumen eskusiboa du kirolaren arloan.

Eskumen horren babesean, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen, eta, horrela, gure erkidegoan kirola arautu eta gidatzen duten jarraibideak ezarri zituen. Legeak zera zehazten du, besteak beste: erakunde komunek kirolaren arloan gauzatu beharreko eskumenak, eta gaietako batzuk gero garatuta daude, agindu arautzaile berezien bidez.

2.1. Eskola-kirola


Eusko Jaurlaritzari dagokio eskola-kirolaren oinarri eta printzipioak, kirolaren diziplina-arauak eta lehiaketak arautzea. Bestalde, autonomia-mailako lehiaketa ofizialak bideratzea, kalifikatzea eta baimentzea ere bere zeregina da.

Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak, bere zereginen barruan, urtero antolatzen ditu **Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak**; haurren kategoriako Euskadiko Lehiaketak eta, kasu batzuetan, kimuenak, 15 kirol-modalitate baino gehiagotan.

1. taula. eta 1. grafikoa: Sexuaren araberako parte-hartze globala **Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan (2005-2013)**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Batez bestekoa, ehunekotan
Neskak	553	636	649	717	765	731	774	848	981	% 40,3
Mutilak	741	768	746	788	774	742	1256	1299	1454	% 59,7

Datuen iturria: Saila.
Erakundeak berak eginda



Euskadiko Eskolarteko Jokoetan, hiru lurralde historikoetako bitan, gutxienez, parte-hartzea egon den kirol-modalitate bakoitzeko txapeldunek parte hartzen dute. Hori dela eta, parte-hartzea ez da funtsean 2011. urtera arte aldatzen.

Urte horretan, Euskadiko Eskolarteko Jokoen barruan errendimendu-lehiaketak sartu zirenez, gizonezkoen parte-hartzeak izugarri egin zuen gora; izan ere, gehitutako errendimenduko hiru modalitate berrietatik (futbola, euskal pilota eta saskibaloia), emakumeek azken modalitate horretan baino ez dute parte hartzen.

Jokoetan, kirol-modalitateen arabera parte-hartzea ere desberdina da, sexuaren arabera.

2. taula: Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako parte-hartzea, sexuaren eta diziplinaren arabera. 2013. urtea.

	Neskak	Mutilak	Guztira	Nesken %
Aerobica	113	0	113	% 100
Xakea	13	45	58	% 22,41
Atletismoa	145	146	291	% 49,83

Saskibaloia	102	109	211	% 48,34
Eskubaloia	43	42	85	% 50,59
Txirrindularitza	14	75	89	% 15,73
Kirol egokitua	3	23	26	% 11,54
Futbola	32	480	512	% 6,25
Areto-futbola	0	36	36	% 0
Gimnastika erritmikoa	124	1	125	% 99,20
Herri-kirolak	40	75	115	% 34,78
Judoa	28	44	72	% 38,89
Karatea	58	79	137	% 42,34
Igeriketa	115	93	208	% 55,29
Padela	6	6	12	% 50
Euskal Pilota	14	50	64	% 21,88
Errugbia	4	45	49	% 8,16
Tenisa	6	6	12	% 50
Mahai-tenisa	17	28	45	% 37,78
Boleibola	32	0	32	% 100

*Datuen iturria: Saila
Erakundeak berak eginda*

Modalitate batzuetan sexu bateko parte-hartzaileak baino ez zeuden; esaterako, ez zen erregistratu nesken parte-hartzerik areto-futbolaren eta pilotaren errendimenduari ekiteko ibilbideetan, ezta mutilena ere aerobicean eta boleibolean. Nabarmentzekoa da, halaber, zein neska-kopuru txikia dagoen errugbian eta kirol egokituan eta zein gizon-kopuru txikia gimnastika erritmikoan.

Euskadiko Eskolarteko Jokoen parte-hartzea hiru lurralde historikoetako foru-organoei ikasturte osoan zehar garatutako programen ondorio zuzena da, haiei baitagokie araudia garatzea eta EAEko eskola-kirolaren inguruko araudia betearaztea.

Programa horietako parte-hartzea aldatu egiten da, kirol- eta adin-kategoriaren arabera. Aldundien eskolarteko kirol-programetako parte-hartzearen gainean ditugun azken datu xehatuak 2006koak dira, baina parte-hartzearen kopuru globala ez da aldatu azken urteotan.

3. taula: Hiru lurralde historikoetako eskolarteko kirol-programetako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)

	Gipuzkoa		Bizkaia		Araba	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Benjamin aurrekoak	4	3	0	0	1.037	843
Benjaminak	4.897	3.545	6.107	2.493	2.413	1.417
Kimuak	4.837	3.569	4.944	3.078	2.516	1.831

Haurrak	2.945	2.644	3.176	2.380	2.216	1.615
Kadeteak	965	989	712	725	1.001	837


*Iturria: hiru foru-aldundiak emandako datuak
Erakundeak berak eginda*

Benjamin aurrekoen kategorian (6 eta 7 urteko umeak) ez da modu berean garatzen hiru lurraldeetan. Bizkaiak, adibidez, ez du bere programetan sartzen. Benjaminen kategorian (8 eta 9 urte) hiru lurralde historikoetan eskolarteko kirol-programetan hasteko adina da, oro har. Nahiz eta, kasu guztietan, neskek mutilek baino gutxiago parte hartzen duten, Gipuzkoan dagoen alde txikiagoa da. Kimuen kategorian finkatzen da eskolarteko kirolaren praktika eta orduan hasten da federatutako modalitate batzuetan parte hartzen. Kirola uzteak eta kirolariak federatutako kategorietara mugitzeak dakar eskolako kirol-lizentzien kopuruak nabarmen behera egitea.


Goragoko kategorietan, emakumeen parte-hartzea proportzioan gizonena baino handiagoa da, eta, Gipuzkoan eta Bizkaian, kadeteen kategorian, kopuruari dagokionez handiagoa. Baina ez da kasualitatea. Kirol federatua, lehiari dagokionez, eskola-kirola baino zorrotzagoa da, eta gaitasunak eta horretarako jarrera egokia duten kirolariek jarduera jarraitzen dute kirol-federazioetan, kimuen kategoriaren amaieran eta haurren hasieran, gehienak mutilak, ohiko kirol-taldea apurtuta. Eskola-kirolak berezko ezaugarriak ditu, besteak beste, kirola lagun-taldearekin egitea, askatasun handiagoa, emaitzen gaineko itzaropen txikiagoak etab. Eta horregatik jarraitzen dute bertan emakumeek proportzioan gizonen baino gehiago. Bitxia da, baina eskola-kiroleko goi-mailako kategoriak dira kirol-erakundeen arreta gutxien erakartzen dutenak.

Lurraldeen artean, egoera ez da bera.


2. grafikoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)



3. grafikoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)





4. grafikoa: Arabako Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)



Baina, bilakaera orokorraren grafikoak erakusten duen bezala, neskek eskola-kirolean duten parte-hartzea mutilena baino askoz ere baxuagoa da EAEn, nahiz eta parte-hartzea konstanteagoa izan.

5. grafikoa: EAEko eskolarteko kirol-programetako parte-hartzearen bilakaera, sexuaren arabera (2006. urtea).



 Ondoriozta daiteke eskolaz kanpoko kirol-jarduerak hasten direnetik –kirol-hasieraren

oinarria, oro har-, lehenengo desorekak ikusten direla sexuaren arabera presentzian, eta, beraz, ibilbidea ez dela bera nesken eta mutilen kasuan. Kirol-jardueran hasteko, jarduera horretan presentzia izateko, jarduera horri eusteko eta berau uzteko egoerak eta arrazoiak ez dira berdinak nesken eta mutilen kasuan.

2.2. Kirol-irakaskuntzak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, bere eskumenen arloan, honako kirol-prestakuntza hauek garatzen ditu:


- Jarduera fisikoen eta kirolaren familiarren lankide-heziketako zikloak.
- Erregimen bereziko kirol-irakaskuntzak
- Oraindik hezkuntza-sisteman sartu ez diren prestakuntzak eta etengabeko prestakuntza Kirolaren Euskal Eskolaren bidez.

Ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik lanbide-heziketako prestakuntza-zikloko ikasleen gainean, baina bai araubide bereziko kirol-irakaskuntzarena eta Kirolaren Euskal Eskolak emandakoena.

4. taula. eta 6. grafikoa: Araubide bereziko kirol-irakaskuntzetako ikasleak. 2012/2013 ikasturtea

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeen %
Erdi-mailako graduiko ikasleak	27	558	585	4,84
Goi-mailako graduiko ikasleak	4	79	83	5,06

*Iturria: Sailaren datuak.
Erakundeak berak eginda*




Azpimarratzekoa da ikasleen % 5 bakarrik izatea emakumezkoa. Araubide bereziko kirol-irakaskuntzak antolatzeko, Kirolen Goi Kontseiluak kirol-federazioei lotuta aitortutako kirol-modalitate eta -diziplinak hartzen dira oinarri, eta horiek zuzendaritza teknikoko eta entrenamenduko lanei bideratuta daude, federazio-munduaren barruan.

Kirolaren Euskal Eskola, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren zerbitzu administratiboa, ez da hezkuntza-zentro baimendua eta, beraz, ematen duen kirol-prestakuntza ez dago araututa. Eskolak oraindik hezkuntza-sisteman sartu ez diren kirol-modalitateen prestakuntza ofizialak eskaintzen ditu, bai eta prestakuntza etengabeko ikastaroak eta jardunaldiak ere.

5. taula. eta 7. grafikoa: Kirolaren Euskal Eskolaren jardueretako parte-hartzea, 2012

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeen %
Bloke komuna	6	1	7	85,71
Etengabeko prestakuntza	149	400	549	27,14
Berdintasunari buruzko berriazko ikastaroa	9	4	13	69,23

*Iturria: Sailaren datuak.
Erakundeak berak eginda*



Etengabeko prestakuntza-ekintzetan emakumeek duten parte-hartzea, nahiz eta baxua izan, beste prestakuntza-jarduera batzuetakoa baino handiagoa da. 2011tik 2012ra, parte-hartzea hobetu egin da, % 20tik % 27ra, baina, oraindik, hobekuntza-marjina nabarmena da.

2012an, genero-jardunaldi berezia antolatu zen kirolaren arloan: "Nire klubean/federazioan ez ditugu emakumeak diskriminatzen". Taula osoko parte-hartze datuak jardunaldi honetakoak dira.



Jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako prestakuntza akademikoan emakumeen presentzia baxuagoa da, bai araubide bereziko irakaskuntzetan, bai Kirolaren Euskal Eskolan. Kirolari lotutako ikasketak hautatzen dituztenen artean mutilak gehiengoa direnez, eta horien parte-hartzea handiagoa denez hezkuntza-ekintza espezializatuenetan, erraz aurreikus daiteke etorkizunean ere gizonen presentzia handiagoa izango dela kirolari lotutako enpleguetan eta etorkizun hobea izango dutela jarduera horietan emakumeek baino. Hala, kirol-ingurunea maskulinoa izango da aurrerantzean ere; alegia, emakume gutxikoa.

2.3. Jarduera fisikoa/aisiakoa

Jarraian, garrantzi handiko jarduera fisikoari buruzko datuak aurkezten dira, genero-ikuspegitik; izan ere, aisialdian egiten diren jarduera fisikoak dira eta garrantzi berezia du bizi-kalitatearen hobekuntzan eta osasunean, bai eta pertsonen integrazioan ere.

6. taula: Kirolaren gaineko interes-maila, adinaren arabera, zenbat egiten den gorabehera. 2010. urtea.

	Gizona	Emakumea	GUZTIRA
	%	%	%
Askotan	21,8	9,1	15,3
Nahikotan	48,5	42,7	45,5
Gutxitan	25,2	33,6	29,6
Inoiz ere	4,4	14,5	9,6
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Espainiako kirol-ohiturei buruzko datuen azterlana. 2010. EA Erako bereziki egina.

Emakumeen % 50 inguruk interes gutxi dute edo batere ez kirolaren inguruan, eta gizonen kasuan, % 29,6k baino ez du interes gutxi edo batere ez. Gizonen % 70,3k interesa du, neurri handi batean, kirolaren inguruan, eta interesa duten emakumeen intentsitatea txikiagoa da.

7. taula: Kirol-jardueraren maila, sexuaren arabera. 2010. urtea.

	Gizona	Emakumea	GUZTIRA
	%	%	%
Kirol-jarduera bat egiten du	28,3	20,5	24,2
Zenbait kirol-jarduera egiten ditu	24,4	12,3	18,1
Ez du kirol-jarduerarik egiten	47,3	67,3	57,6
GUZTIRA	100	100	100


Iturria: Espainiako kirol-ohiturei buruzko datuen azterlana. 2010. EA Erako bereziki egina.

Kirol-jarduera ere desberdina da sexuaren arabera. Emakumeen ia % 70ek ez du jarduera fisikorik egiten, eta, gizonen kasuan, % 50ek. Gainera, gizonen kasuan gehiagok egiten dituzte zenbait kirol-modalitate, emakumeen aldean. Kirol bakarra egiten duten pertsonen artean ehunekoak antzekoagoak dira emakume eta gizonentzat, baina jarraitzen du gizonen ehunekoak handiagoa izaten.

1	G	28,3	5,8	30,8	16,5	2,5	2,5	10,8	0,8	1,2
	E	14,3	2,9	40,0	8,7	7,5	1,8	22,2	0,0	1,4
	G U Z .	22,8	4,7	34,4	13,4	4,5	2,3	15,3	0,5	1,3
2.	G	14,6	17,1	22,3	18,6	5,6	4,9	11,9	1,3	0,4
	E	10,5	9,0	23,8	11,5	14,9	5,7	19,1	0,5	0,6
	G U Z .	13,0	13,9	22,9	15,8	9,3	5,2	14,7	1,0	0,4
3.	G	12,8	10,8	14,0	14,4	6,2	7,4	17,5	4,8	1,2
	E	15,6	6,8	11,3	8,8	12,2	7,8	18,0	1,2	2,3
	G U Z .	13,9	9,2	12,9	12,2	8,6	7,6	17,7	3,3	1,6

«G» = gizonak, «E» = emakumeak, «GUZ.»= guztira.
 Iturria: Espainiako kirol-ohiturei buruzko datuen azterlana. 2010.
 EAErako bereziki egina.

8. grafikoa: Kirola egiteko arrazoiak, sexuaren arabera.



Emakumeek kirola egiteko aipatu dituzten arrazoiaren artean, hauek izan dira sarrien agertu direnak: "ariketa fisikoa egitearren" eta "osasunagatik". Eta gizonen kasuan, berriz, honako hauek dira aipatzekoak: "ariketa fisikoa egitearren" (emakumeen artean baino gutxiagotan aipatu dute, proportzioan) eta "dibertitzeko eta denbora-pasarako"; azken horri dagokionez, alde handia dago emakumeen eta gizonen artean.


10. taula: Kirol-jarduera uzteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2010. urtea.

		Azpiegitura egokirik ez egotea	Instalaziorik hurbil ez egotea	Osasun-arazok egotea	Adinagatik	Lanaren/ikasketen ondoriozko nekea	Norberaren ordutegia eta instalazioak bat ez etortzea	Nagitasuna eta gogorik eza	Dagoneko gogorik ez izatea	Onuririk ez ikustea	Diru nahikorik ez izatea	Beste arrazoi batzuk	Denbora falta
		%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
1	G	1,5	1,8	17,4	13	38,9	5	9	1,7	0,4	1,3	4,5	4,5
	E	1,3	2,4	13,4	5,8	32,9	7,9	12,6	1,6	0,1	1,9	9,6	9,2
	G U Z.	1,4	2,1	15,4	9,4	35,9	6,4	10,8	1,7	0,2	1,6	7	6,9
2	G	1,4	1,8	7,2	8,1	12,6	7,8	21,3	3,2	0,6	1,8	5,2	3,6
	E	1,5	3,1	4,6	4	13,7	8,2	17,3	3,3	0,8	2,7	5,9	5,5
	G U Z.	1,4	2,4	5,9	6,1	13,2	8	19,3	3,2	0,7	2,2	5,6	4,6

«G» = gizonak, «E» = emakumeak, «GUZ.»= guztira.

Iturria: Espainiako kirol-ohiturei buruzko datuen azterlana. 2010.
EA Erako bereziki egina.

9. grafikoa: Kirol-jarduera uzteko arrazoiak, sexuaren arabera.



Kirol-jarduera uzteko arrazoi nagusia, bai gizonetan, bai emakumeetan, "lanaren/ikasketen ondoriozko nekea" eta "osasun-arazoak" dira. Emakumeen artean, "instalazioen ordutegia bat ez etortzea", "denbora falta" eta "nagikeria eta gogorik eza".



Oro har, gizonak emakumezkoek baino kirol gehiago egiten dute. Halaber,

nabarmenezkoa da emakumeen eta gizonen artean kirola egiteko dagoen motibazioaren aldetiko desberdintasuna ere: gizonen ehunekoa baino emakumeen ehuneko handiagoak erabakitzen du kirola osasunagatik, arrazoi fisikoengatik eta estetikagatik egitea, eta gizonen kasuan ehuneko handiagoak dibertitzeagatik, denbora pasagatik eta kirola atsegin dutelako.

Kirola egiteari uzteari dagokionez, nabarmenagoa da emakumeen artean (25 eta 35 urte bitartean eta 50 urtetik aurrera), eta gizonek denbora luzeagoz mantentzen dute kirol-jarduera. Emakumeak dira "nagikeria" eta "jarduera atsegin ez dutela" esanez ariketa fisikoa egiteari utzi izana arrazoitu dutenak; gizonen kasuan, "lanaren ondoriozko nekea" da arrazoi nagusia, baina bitxia da, inkestaren arabera, emakumeek dutelako denbora libre gutxiago egunero.

2.4. Kirol Federatua

Kirola, dagoeneko aipatu den bezala, tradizionalki gizonezkoen jarduera da, eta emakumeak geldiro baina etengabe joan dira sartzen. Emakumeen presentziak, oro har, jarraitzen du txikiagoa izaten, batez ere, kirol federatuan eta profesionalen.

Horrenbestez, eta azken urteotan gora egin duen arren emakume kirolarien kopuruak, 2012an, emakumeen kirol-lizentzia federatuak lizentzia guztien % 19,82 baino ez ziren. Lizentzia federatua duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa zen 47 kirol-federazioetatik 42tan. Hain zuzen ere, gimnastika (% 95 neskak), boleibol (% 70), hipika (% 64), badminton (% 61) eta beisbol eta softball (% 51) kirolen federazioak dira lizentzia duten emakume-kopuru gehiena dutenak. Alabaina, ehiza, arrantza, motoziklismo, automobilismo, txirrindularitza, aireko kirol eta squash federazioetan lizentzia duten emakumeen ehunekoa lizentzia guztien % 5 baino txikiagoa da.


11. taula: Kirolarien lizentziak euskal kirol federazioetan. 2012. urtea.

Euskal Federazioak	Emakumeak	Gizonak	Guztira	emakumeen %
URPEKO EKINTZAK	272	2.128	2.400	11,33
XAKEA	274	2.219	2.493	10,99
ATLETISMOA	664	1.515	2.179	30,47
AUTOMOBILISMOA	25	578	603	4,15
BADMINTONA	170	108	278	61,15
SASKIBALOIA	3.004	4.586	7.590	39,58
ESKUBALOIA	1.184	2.206	3.390	34,93
BEISBOLA ETA SOFTBALLA	167	161	328	50,91
BOLA-JOKOA	637	3.380	4.017	15,86
BOXEOA	29	314	343	8,45
EHIZA	73	17.262	17.335	0,42
TXIRRINDULARITZA	282	7.767	8.049	3,50

AIREKO KIROLAK	22	552	574	3,83
NEGUKO KIROLAK	914	1.028	1.942	47,06
KIROL EGOKITUA	117	398	515	22,72
ESGRIMA	33	67	100	33,00
FUTBOLA	2.800	24.486	27.286	10,26
GIMNASIA	454	20	474	95,78
GOLFA	5.777	11.548	17.325	33,34
HALTEROFILIA	14	135	149	9,40
HERRI KIROLAK	89	778	867	10,27
HIPIKA	847	467	1.314	64,46
HOCKEYA	258	464	722	35,73
JUDO ETA K.E.-A	229	1.169	1.398	16,38
KARATEA	377	1.015	1.392	27,08
BORROKA ETA SANBOA	20	107	127	15,75
MENDIA	8.552	22.742	31.294	27,33
MOTOZIKLISMOA	2	407	409	0,49
IGERIKETA	931	1.354	2.285	40,74
PADELA	872	1.866	2.738	31,85
PATINAJEA	136	466	602	22,59
PILOTA	153	2.570	2.723	5,62
ARRANTZA ETA KASTINGA	71	1.799	1.870	3,80
PETANKA	47	159	206	22,82
PIRAGUISMOA	166	732	898	18,49
ARRAUNA	373	1.898	2.271	16,42
ERRUGBIA	144	1.617	1.761	8,18
SQUASHA	4	79	83	4,82
SURFA	352	2.462	2.814	12,51
TAEKWONDOA	127	430	557	22,80
TENISA	319	1.130	1.449	22,02
MAHAI TENISA	20	250	270	7,41
ARKU TIROA	109	565	674	16,17
TIRO OLINPIKOA	192	2.832	3.024	6,35
TRIATLOIA ETA TALDE KIROLAK	170	1.595	1.765	9,63
BELA	222	1.098	1.320	16,82
BOLEIBOLA	644	272	916	70,31
	32.338	130.781	163.119	% 19,82

Iturria: Euskal Kirol Federazioek emandako datuak
Erakundeak berak eginda

10. grafikoa: Emakume kirolarien lizentzia federatuen kopuruaren bilakaera. 2005. urtetik 2012ra.



Emakumeen kirol-lizentzia federatuen proportzioa ez da ia aldatu azken urteotan. Nabarmentzekoa da emakumeen jarduera fisikoak azken urteotan gora egin badu ere, emakumeak ez direla sartu kirol-jarduera federatuan.


Bestalde, emakumeek Euskal Herriko kiroletan (arrauna, euskal pilota eta herri-kirolak) duten presentziaren analisi laburra egin behar da. Mendeetan zehar, emakumeek ez dute ia kasuren batean ere parte hartu kirol-modalitate horietan. Hiru modalitate horietako parte-hartzea ez da bera, baina guztietan dituzte emakumeek zailtasunak kirol-jarduera garatzeko.

12. taula: Euskal Herrikoak bertakoak diren hiru kiroletan emakumeen kirol-lizentzia federatuen proportzioa (2005-2012)

Emakumeen lizentzien %	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
HERRI KIROLAK	10,88	11,53	10,24	12,64	10,82	12,21	10	10,27
PILOTA	2,33	3,23	4,08	3,83	3,64	5,58	5,95	5,62
ARRAUNA	10,90	15,57	16,73	14,94	14,19	14,16	14,50	16,42

Iturria: Euskal Kirol Federazioek emandako datuak
Erakundeak berak eginda

11. grafikoa: Emakumeen arrauneko, euskal pilotako eta herri-kiroletako lizentzia federatuen proportzioa. 2005. urtetik 2012ra.



Arraunaren modalitatea da emakumeen lizentzia federaturik gehien duena, gero euskal pilotarena eta, azkenik, herri-kirolena. Emakumeei bereziki zuzendutako arrauneko txapelketak sortu izanak beren parte-hartzea sustatu du, eta beste guztien aldean nagusitu egiten da 2008an Kontxako emakumeen txapelketa martxan jarri izana eta telebistatik ematea.

Euskal pilotak, ordea, beste bilakaera bat izan du. Eskola-kirolean esku pilotara jokatzeko duen neska-kopuru txikiak mutilekin batera jokatzeko du, eta haurren eta kadeteen kategorian utzi egin behar izaten dute, beraiei zuzendutako txapelketarik ez dagoelako. Azken hiru edo lau urteotan, euskal pilotako emakumeen lizentzia-kopuruak gora egin du, nabarmen, 2004tik garatzen ari diren emakumeentzako goma-paleta sustatzeko programei esker; etekinak ikusten ari dira. Emakumeen presentzia ia hutsa da euskal pilotaren gainerako modalitateetan.

Herri-kiroletan, laurogeiko hamarkadatik aurrera, emakumeen parte-hartzea bultzatu zen. Sokatirako taldeak sortu ziren eta liga handiak antolatu ziren. Era berean, nabarmendu behar da azken urteotan gero eta emakume gehiagok parte hartu duela txingira, frontza, sega edo harri-jasotze probetan. Baina, nolana ere, herri-kirolen aurrerapena oso zaila da, eta, pixkanaka, bai parte-hartze orokorra, bai emakumeena, zehazki, atzera egiten ari da.

Horrek guztiak agerian uzten du emakumeen presentzia nabarmen minoritaria dela eta oraindik ere bereizketa horizontala gertatzen dela, kirol jakin batean nagusiki gizonak edo emakumeak jardun izan diren kontuan hartuta. Emakumeen kirol-jarduerak osasunari eta ariketa fisikoari lotuta daude, eta ez hainbeste kirol-lehiari. Azken 8 urteotan, emakumeak pixkanaka kirol-munduan sartzen ari badira ere, ez da emakumeen presentziaren igoera handirik antzeman kirol federatuan.

2.5. Goi-mailako kirola


Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 68. artikularen bidez, interes publikokotzat aitortzen du «goi-mailako kirola», eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hori antolatu, bultzatu eta kontrola dezala Euskal Autonomia Erkidegoan. Aurrekoarekin bat, Lege horren 4. artikuluko 2.c) lerrokadak autonomia-erkidegoko erakundeei esleitzen die Euskadin goi-mailako kirola antolatzeko eta sustatzeko eskumena.

Bere eskumenen barruan, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak, sei hilabeterik behin, goi-mailako aitortzen ditu, agindu bidez, Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 213/2010 Dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten kirolari, langile tekniko eta epaileak.

13. taula. eta 12. grafikoa: 2010. urtetik gaur egun arte goi-mailako aitortutako kirolari, tekniko eta epaileak.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	emakumeen %
Kirolariak	48	54	102	% 47
Teknikariak	4	24	28	% 14,2
Epaileak	0	7	7	% 0
			137	

*Iturria: Sailaren datuak.
Erakundeak berak eginda*



Nahiz eta nolabaiteko oreka dagoen emakume eta gizon kirolarien artean, oso nabarmena da goi-mailako entrenatzaile gizonezko eta emakumezkoen artean eta epaile gizonezkoen eta emakumezkoen artean dagoen arraila. Ez dago Euskadin goi-mailako epaile emakumezkoen. Ez dugu Euskadiko klubetan eta federazioetan lan egiten duten langile teknikoei eta zuzendaritzako, arbitrajeko, kudeaketako langileei buruzko estatistikako informazio orokorrik, baina emakumeen falta nabarmena da arlo guztietan.

Gainera, EAEn goi-mailako kirola sustatzeko, Euskadi Kirola Fundazioa sortu zen; araubide juridiko pribatuko fundazio publikoa, eta bere interes orokorreko helburuak dira goi-mailako euskal kirola garatzea, nazioarteko kirol-lehiaketetan ordezkari handia izatea ahalbidetzeko –bereziki puntako kirol-ekitaldietan–, eta horietan euskal kirolariek goi-mailako emaitzak lortzeko.

Euskadi Kirola Fundazioak, urtero, laguntzak ematen dizkie kirolariei, langile teknikoei, kirol-nukleoei eta kirol bikaintasunerako proiektuei. Laguntza horien helburua goi-mailako kirol EZ profesionala sustatzea eta laguntzea da eta, beraz, kanpoan geratzen da liga eta zirkuitu profesionaleri lotutako goi-mailako kirola.


Irizpide hori funtsezkoa da gizonezkoen eta emakumezkoen kirolari ematen zaion laguntza balioesteko; izan ere, EAEn ia ez dago emakumezkoen kirol profesionalik eta, beraz, Fundazioak goi-mailan lehiatzen diren ia emakume guztiei laguntzen die. Hori ez da, ordea, gizonezkoen kasua. Laguntza horietatik kanpo daude kirolari profesional batzuk, besteak beste, futbol, pilota, saskibaloia eta eskubaloia profesionalak parte-hartzaileak Kirol profesionala ia osorik gizonek osatzen dute; horietako askok neurritz kanpoko diru-sarrerara eta gizarte-oihartzuna dute, eta bertan dago generoaren desberdintasunaren kota garaiena. Hala ere, ezin izan da analisirako informaziorik bildu, pribatua delako

Arlo profesionaleko datu-gabezia hori, berez, emakume eta gizonen arteko egoera desberdina aztertu eta ikertzeko ahalegin handiagoa egin behar den seinale da, eta genero-ikuspegia txertatuta dagoen esku-hartze publikoa bideratzeko balio dezake.

14. taula. eta 13. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioaren 2013ko laguntzak jasotzen dituen pertsona- eta talde-kopurua

	Emakumeak	Gizonak	Mistoa	Guztira
Banakako kirolariak	19	21		98
Entrenatzaileak	1	16		17
Kirol-taldeentzako laguntzak	2	1	2	5

*Iturria: Sailaren datuak.
Erakundeak berak eginda*



Banakako emakume kirolariei emandako beka-kopurua gizonei emandakoa baino baxuagoa den arren, bi kirol-nukleo daude emakumeek baino ez dutena osatzen, eta, hori dela eta, emakume kirolari onuradunen guztizko kopurua taulan dakarrena baino handiagoa da.

Entrenatzaile gizonezko eta emakumezkoen arteko arrailak, ordea, jarraitzen du argia izaten.

Gainera, presentziaren aldetik dauden desberdintasunez gain, batzuen eta besteen kirol-ibilbidearen garapenean desberdintasunak ageri dira.

"Genero-ikuspegitik EAEko goi-mailako kirolarien egoerari buruzko ikerlana"ren arabera, emakume kirolariak gizon kirolariak baino kezkatuago ageri dira beren kiroleko profesionalizazio-maila txikiaren ondoriozko egonkortasun ekonomiko ezagatik eta babesle faltagatik, hala nola lesio larriren bat edo ama izateak eragin diezaikekeen babesgabetasunagatik. Haurtzaro edo gaztaroaz geroztik argi dute beren kirolari bizitza eta ikasketak bateratu behar dituztela, etorkizun profesionala bideratuko badute. Hala, ia hirutik batek beka jasotzea eta lana egitea bateratzen dituzte (gizonezkoen % 16,6ak baino ez du gauza bera egiten). Etorkizunari dagokionez, emakumeek nahiz gizonek adierazten dute kirolarekin lotutako lanetan aritu nahi dutela, batez ere kudeaketan (emakumeen % 61,5 eta gizonen % 77,7), baina baita entrenatzaile-lanetan ere (emakumeen % 53,8 eta gizonen % 72,2).


2012. urtea, urte olinpikoa izan zenez, urte berezia izan zen Euskadi Kirola Fundazioarentzat. Joko Olinpikoak fundazioaren gizonezko eta emakumezko kirolari askoren lau urteko ziklo bateko lana nabarmentzeko modua da; horiek osatzen zuten Londreseko Joko Olinpikoetara joan zen ia euskal espedizio guztia.

Azken zita olinpiko horretan, 4.850 emakume kirolari izan ziren, eta parte-hartzeari dagokionez kota historikoa lortu zen, % 46koa¹; 2008ko Bejiingeko Joko Olinpikoen aldean, % 4 gehiago. 2012an Londreseko euskal ordezkariak olinpikoa 10 emakumek eta 15 gizonek osatu zuten, Bejiingekoa baino desorekatuagoa, orduan 12 emakume eta 12 gizon izan baitzuten.

15. taula. eta 14. grafikoa: 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetako euskal kirolarien partaidetza

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeen %
Kirolariak	10	15	25	% 40
Dominadunak	5	0	5	% 100
Diplomadun kirolariak	1	6	7	% 14,29
9. eta 16. postuen artean	1	6	7	% 14,29

*Iturria: Euskadi Kirola Fundazioaren datuak.
Erakundeak berak eginda*



Euskal kirolarien parte-hartzea Londresen oso altua izan zen. Ingalaterrako hiriburura joan ziren euskal kirolari emakumezkoen erdiak domina lortu zuen (gizonezkoen artean euskal kirolari batek ere ez zuen lortu). Eta emakumeen % 70ek eta gizonen % 80k lortu zuen munduko lehenengo 16en artean geratzea.

Kasu honetan, Euskadi Kirola Fundazioa egotea erabakigarria izan da euskal kirolari emakumeen kirol-ibilbiderako; izan ere, kirol profesionalaren euskarririk gabe, ezin izango zuketzen kirol-lana zita olinpikoak eskatzen duen dedikazioarekin eta baldintzetan bete.

🌀 Azpimarratu behar da, nahiz eta emakume eta gizon kirolarien arteko nolabaiteko oreka egon, genero-arraile nagusiak gizonezko eta emakumezko entrenatzaile eta epaileen artean daudela.

Nolanahi ere, horren inguruko datuak hobetzeko beharra ikusten da.

Hala ere, genero-arraile handiak daude kirol profesionalean, ia ez baitago emakumerik. Hori dela-eta, erakundeek (Euskadi Kirola Fundazioa) emakumeen goi-mailako jarduera bultzatzea da emakumeek duten laguntza ekonomiko ia bakarra.

3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE HARTZEA KIROLAREN ARLOAN

Emakumeek ez dute gizonek bezainbeste parte hartu kirol-ekintzetan eta egun ere joera horri eusten zaio. Ez da ausazko gertakari bat, ez eta isolatua ere; alegia, emakumeen presentzia txikiagoa da publikotzat hartu diren esparru guztietan,

esaterako, lan-munduan, politikagintzan eta kulturgintzan, besteak beste. Kirola ere esparru publiko horietako bat da.

Horren harira, erakunde mailan gertatzen dena aipatu behar da, kirol-egitura guztietan oso txikia baita emakumeen ordezkariak. Emakumerik ez dagoenez erabaki-guneetan, eta kirolaren inguruko egiturak maskulinoak direnez oso, emakumeak nahi baino astiroago heltzen dira kirolera.

3.1. Kirolaren elkarre-egitura publikoa


Zuzendaritza-kargu publikoak aztertzen badira ikusten da kirol-erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa dela. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko den Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzan emakume bat da buru, eta sailburuordetzako eta zuzendaritzako karguak gizonak betetzen dituzte. Foru-aldundien kasuan, Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia gizon batek eta emakume batek zuzentzen dituzte eta Bizkaiko Foru Aldundia 2 emakumek. Foru-karguetan egoera hobetu egin zen, nabarmen, 2011ko Batzar Orokorretarako pasa den hauteskundeetan.


Kontsulta- eta aholkularitza-organoak dagokienez, nabarmentzekoa da Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako Kirol Zerbitzuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako ordezkariak orekatuaren parametroa bete egiten dela atxikitako 4 kontsulta organoetako hirutan. Ahalegin kontziente bat egin da, legea ordezkariak parekatueta bete dadin eta, hartara, ekintza positiboko neurriak aplikatzeko. Izan ere, organo horiek elikatzen dituzten kirol-federazioetan emakumeen absentsia nabarmena da.

16. taula. eta 15. grafikoa: Batzordeen eta aholku- eta aholkularitza-organoen eraketa.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Kirolaren Euskal Kontseilua	12 (% 35,3)	22	34
Eskola Kirolaren Euskal Batzordea	2 (% 40)	3	5
Kirol Justiziako Euskal Batzordea	4 (% 57,1)	3	7
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea.	6 (% 42,9)	8	14

*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*




 Kargu publikoetan eta aholku- eta aholkularitza-organoetan ordezkari-tza orekatua egotea, erabakiak hartzeko espazio estrategikoak diren aldetik, berdintasunaren arloan legegintzako printzipio orokorretako bat da, eta, pixkanaka aurrerapenak gertatzen ari badira ere, datuek erakusten dute oraindik ere estrategien gainean pentsatu behar dela, presentzia ez-orekatuei buelta emateko. Esperientziak adierazten du hain arlo maskulino-tuan, kirolaren kasuan bezala, berez, oreka horiei ez zaiela buelta ematen, izendapenetan ekintza positibo-en bidez esku hartuz ez bada. Gainera, administrazio publiko den aldetik, eredu gisa jardun behar da, legea betetzeko.

3.2. Kirolaren elkarte-egitura pribatua

Federazio-arloaren analisiak, 2011ko Euskal Kirol Federazioen Zuzendaritza Batzordeen gainean dauden azken datuetan oinarrituta, emakumeek oraindik kirol-federazioen egitura maskulino-tuetara sartzeko duten zailtasuna erakusten du. Esaterako, euskal 47 federazioetatik bitan (alegia, % 4an) besterik ez dago presidente-kargua emakumeen esku, hain juxtu, surf eta golf federazioan. Gaur egun, 2012aren amaieran eta 2013ko hasieran euskal kirol-federazioetako presidentetzetako hauteskundeen ondoren, egoera oraindik okerragoa da, federazio bateko emakumezko presidente bakarra hautatu baita (golfekoa). Ez dugu ezagutzen egungo zuzendaritza-batzordeen eraketa, baina, 2011n, emakumeak guztien % 13,5 baino ez ziren.

Zuzendaritza-batzordeetan emakumeen presentzia hain urria dela ikusita, Kirol Zuzendaritza ohiak hautets-araudian honakoa sartzeari bultzatu zuen: zuzendaritza-batzordeetarako hautagai-zerrendako kideen % 40 gutxienez emakumeak edo gizonak izan daitezela, edota gutxienez ordezkari-tutako sexuko lizentzien ehunekoa baino handiagoa, bederen. Gainera, ezarritakoaren arabera, berdinketarik egonez gero, irabazlea emakume bat buru duen zerrenda izango zen. Gaur egun ez dakigu aldaketa horien bidez emakumeek batzorde horretan duten parte-hartzea hobetu den, baina ezetz uste dugu.

Era berean, kirol-federazioetako kudeatzaile eta zuzendari tekniko postu ia guztiak (% 95,7) gizonen esku daude.

Gainera, 2003-2007 aldirako Kirolaren Euskal Planak hauteman zuenaren arabera, kirol-federazioetan emakumeen esku zeuden postuak administraziokoak edo idazkaritzakoak ziren. Interesgarria litzateke maila profesional horiek gaur egun zertan diren ikertzea.

17. taula: Euskal Federazioen Zuzendaritza Batzordeetako parte-hartzea. 2011. urtea.

EUSKAL FEDERAZIOAK	Parte-hartz. guztira	Emakume-kop.	Presidentzia	emakumeen %
GIMNASIA	19	13	Gizona	68
PETANKA	5	2	Gizona	40
TRIATLOIA	10	4	Gizona	40
ESKUBALOA	16	5	Gizona	31
PATINAJEA	14	4	Gizona	29
BOXEOA	11	3	Gizona	27
GOLFA	11	3	Emakumea	27
ATLETISMOA	15	4	Gizona	27
BADMINTONA	8	2	Gizona	25
SURFA	8	2	Emakumea	25
PIRAGUISMOA	13	3	Gizona	23
ARKU TIROA	9	2	Gizona	22
HIPIKA	9	2	Gizona	22
BOLEIBOLA	10	2	Gizona	20
XAKEA	15	3	Gizona	20
ARRANTZA ETA KASTINGA	18	3	Gizona	17
AUTOMOBILISMOA	12	2	Gizona	17
BOLO JOKOA	6	1	Gizona	17
ESGRIMA	6	1	Gizona	17
MAHAI TENISA	7	1	Gizona	14
HOCKEYA	8	1	Gizona	13
FUTBOLA	17	2	Gizona	12
NEGUKO KIROLAK	10	1	Gizona	10
TAEKWONDOA	10	1	Gizona	10
HALTEROFILIA	11	1	Gizona	9
MENDIA	11	1	Gizona	9
PADELA	11	1	Gizona	9
TXIRRINDULARITZA	11	1	Gizona	9
ERRUGBIA	12	1	Gizona	8
PILOTA	13	1	Gizona	8
KIROL EGOKITUA	13	1	Gizona	8
SASKIBALOA	13	1	Gizona	8
TIROA	13	1	Gizona	8
IGERIKETA	15	1	Gizona	7
KARATEA	15	1	Gizona	7

JUDO	17	1	Gizona	6
TENISA	17	1	Gizona	6
AIREKO KIROLAK	7	0	Gizona	0
ARRAUNA	11	0	Gizona	0
BEISBOLA ETA SOFTBALLA	6	0	Gizona	0
BELA	9	0	Gizona	0
EHIZA	5	0	Gizona	0
HERRI KIROLAK	11	0	Gizona	0
MOTOZIKLISMOA	11	0	Gizona	0
URPEKO EKIN.	12	0	Gizona	0
BORROKA ETA SANBOA	-	-	Gizona	
SQUASHA	-	-	Gizona	
	511	80	2 emakume	% 13,54

Iturria: Euskal Kirol Federazioek emandako datuak
Erakundeak berak eginda



Erakunde-mailan gertatzen dena aipatu behar da, kirol-egitura guztietan, bai maila publikoan, bai pribatuan, oso txikia baita emakumeen ordezkariak. Arlo pribatua bada ere, administrazio publikoaren erantzukizuna desberdintasuna ezabatzeko neurriak sustatzea da, dela araudiaren bidez, dela diruz laguntzeko, kontratatzeko edo hitzarmenatarako ildoen bidez; horietan, besteak beste, kirol-erakundeen ordezkariak orekatuari buruzko baldintzak eta balioespen-irizpideak antzeman daitezke.

4.

EMAKUMEEK ETA GIZONEK KIROLAREN ARLOKO BALIABIDEETARA JOTZEKO DUTEN AUKERA ETA HORIEN KONTROLA

Gizonen kirol-jarduerak, batez ere modalitate errotuenei dagokienez, onarpen sozial zabal eta luzea duenez, mota guztietako baliabideak jasotzen ditu lehenespenez: ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak. Emakumeak, aldiz, bigarren mailan daude baliabide eskurapenari dagokionez. Gainera, beraiek dira kaltetuenak behar ekonomikoek jarduera egitea zailtzen dutenean.


4.1. Diru-laguntzak

Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren Kirol Zerbitzuak urtero argitaratzen ditu, agindu bidez, diru-laguntzen hiru deialdi:

- 1) Euskal kirol-federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia
- 2) Nazioarteko arloko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko diru-laguntzen deialdia
- 3) Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia

Jarraian, diru-laguntza horien ratioak aurkezten dira, sexuaren arabera:

16. grafikoa: 2012ko euskal kirol-federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen ratioa, sexuaren arabera



*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*

Ez daukagu euskal kirol-federazio bakoitzaren barruan emakumeei bereziki bideratutako kopuruari buruzko datuak. Berriz ere, informazio hori ez izatea diagnostikorako elementu bat da etorkizuneko esku-hartzea orientatzeko, kasu honetan, arloa hobeto ezagutzeko, genero-ikuspegitik.

Federazio bakoitzean diru-laguntzak emakume eta gizonen ehunekoarekin proportzioan banatuko balira ere (lizentzia-kopuruaren arabera), emakumeei horien zati txiki bat baino ez legokie (% 22,8).

Nolanahi ere, esperientziak adierazten du federazioek ez dituztela emakumeentzako eta gizonentzako baliabide berak bideratzen eta desoreka dagoela baliabide ekonomikoaren, materialen eta giza baliabideen banaketan.

18. taula: 2012an nazioarteko arloko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-laguntzen datuak

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Mistoak	Guztira
Diruz lagundutako lehiaketa-kopurua	8 (% 38,1)	11 (% 52,38)	2 (% 9,52)	21
Emandako diru-laguntza, guztira	123.194 € (% 33,30)	209.534 € (% 56,63)	37.272 € (% 10,07)	370.000 €
Batez bestekoa, lehiaketako	15.399 €	19.049 €	18.636 €	17.619 €


*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*

Nazioarteko kirol-txapelketetan parte hartzea diruz laguntzen da, kirol-erakundeak aurretik eskatuz gero. Emakumeen txapelketa-kopuru gutxiago eskatu eta diruz lagundu dira gizonezkoen txapelketa-kopuruaren aldean.

Diruz lagundutako txapelketen % 52,38an gizonezkoek baino ez dute parte hartzen eta % 38,1en emakumezkoek baino ez. Parte-hartze mistoko txapelketak diruz lagundutako txapelketen ia % 10 dira, baina, txapelketa-mota honetan, parte-hartzea ez da zuzena eta emakume-kopurua askoz ere txikiagoa da.


Emakumezkoek parte hartzen duten txapelketetarako ematen diren kopuruak ere txikiagoak dira.

17. grafikoa: 2012an nazioarteko arloko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-kopuruak



Emakumeen txapelketa-kopuru gutxiago eskatu eta diruz lagundu direla kontuan hartuta, pentsa daiteke horiei emandako diru-kopuru txikiagoa proportzio horrekin bat datorrela. Hala ere, sexuaren arabera txapelketa bakoitzari emandako ratio ekonomikoaren gainean hausnartzen badugu, ikusiko dugu emakumezkoen txapelketarako emandako diruaren batez bestekoa gizonezkoen emandakoa baino txikiagoa dela. Emakumezkoen txapelketa bakoitzak batez bestekoak baino 2.220 € gutxiago eta gizonezkoen txapelketek baino 3.649 € gutxiago jaso du.

18. grafikoa: 2012an nazioarteko arloko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-kopuruaren ratioa sexuaren arabera.




Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak, aurreko deialdian bezala, erakunde antolatzaileak aurretik eskatuta finantzatzen dira. Kasu honetan ere emakumezkoenak baino ez diren lehiaketa gutxiago diruz lagundu dira gizonezkoenak baino ez diren lehiaketen aldean.

19. taula. eta 19. grafikoa: Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntza kopurua, 2012. urtea

	Emakumea	Gizona	Mistoak	Guztira
1. ildo- Edizio bakarreko mundu-lehiaketa	0	0	1	1
2. ildo- Liga formatuko mundu-lehiaketa	1	3	1	5
3. ildo- Nazioarteko gainerako lehiaketak	2	8	18	28
	3	11	20	34

*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*



Emakumezkoenak baino ez diren lehiaketak antolatzeko guztizko kopurua txikiagoa da gizonezkoenak baino ez diren lehiaketak antolatzeko bideratutakoa baino. Lehiaketa mistoetako parte-hartzea ez da ekitatiboa (emakumeena txikiagoa da, kasu guztietan).

20. taula: Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntza kopuruak, 2012. urtea

	Emakumea	Gizona	Mistoak	Guztira
1. ildoak- Edizio bakarreko mundu-lehiaketa	0 €	0 €	45.000 €	45.000 €
2. ildoak- Liga formatuko mundu-lehiaketa	23.000 €	66.000 €	11.000 €	100.000 €
3. ildoak - Nazioarteko lehiaketak	14.473,68 €	48.947,38 €	66.579 €	130.000,00 €
	37.474 €	114.947 €	122.579 €	275.000 €


*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*

Baina, kasu honetan, aurreko deialdian ez bezala, emakumezkoen lehiaketak antolatzeko ratio ekonomikoa gizonezkoentzat bideratutakoa baino handiagoa da.

21. taula. eta 20. grafikoa: 2012an kirol-lehiaketa ofizialak antolatzeko emandako diru-kopuruen ratioa sexuaren arabera.

	Emakumea	Gizona	Mistoak	Guztira
1. ildoak- Edizio bakarreko mundu-lehiaketa			45.000 €	45.000 €
2. ildoak- Liga formatuko mundu-lehiaketa	23.000 €	22.000 €	11.000 €	56.000 €
3. ildoak - Nazioarteko lehiaketak	7.236,84 €	6.118,42 €	3.699 €	17.054,09 €
	12.491,23 €	10.449,76 €	6.128,95 €	8.088,24 €

*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*



Ikusten da, emakumeen kirola sustatzeko ahalegina egin arren, diru-laguntza ildoen bidezko baliabide publikoen banaketa ekitatibo eraginkorra mugatua dela eta baliabide publiko horietan monopolizazio-maila altua dagoela gizonen aldetik.

Hori horrela, botere publikoen erantzukizuna berriz ere da desberdintasun horiek ezabatzeko neurriak ezartzea. Berdintasunezko klausulen bidez diruz laguntzeko ildoen egokitzapena nazioarteko ekitaldi mistoak edo bakarrik emakumezkoenak –ekintza positibo gisa– sustatzeko eta/edo antolatzeko lanarekin batera egin behar da.

4.2. Bekak

Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren Kirol Zerbitzuak goi-mailako kirolerako diru-laguntzak Euskadi Kirola Fundazioaren bitartez bideratzen ditu, horren patronatuko partaide baita, EITBrekin batera, eta erakundearen zuzeneko diru-sarreraren % 75 mantentzen du; 2012ko diru-laguntza izenduna 1.140.000 € izan zen. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriarte Toledo da patronatuko buru.

22. taula: Euskadi Kirola Fundazioak emandako beken onuradunen kopurua, estamentuaren eta sexuaren arabera, 2013an

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Kirolariak (indibidualak eta nukleoak)	59	39	98
Entrenatzaileak	1	16	17
Onuradunen kopurua	60	55	115


Iturria: Euskadi Kirola Fundazioaren datuak.
Erakundeak berak eginda

Diru-laguntza jaso duten talde eta ekipoak osatzen dituzten pertsona guztien sexua kontuan hartzen badugu (talde mistoak barne), emakume-kopurua handiagoa da gizonena baino. Emakume-kopuru handiena emakumezkoenak baino ez diren bikaintasuneko kirol-nukleoetan (ekipoak), besteak beste eskubaloiko Bera Bera taldea edo hockeyko Real Sociedad, batzen da.

23. taula. eta 21. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen kopurua, estamentuaren eta sexuaren arabera, 2013an

	Emakumeak	Gizonak	Mistoa	Guztira
Kirolariak	280.941 €	353.143 €		634.084 €
Entrenatzaileak	2.250 €	114.250 €		116.500 €
Kirol-taldeentzako laguntzak	58.000 €	30.000 €	56.000 €	144.000 €

Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda




Ekipoei emandako diru-laguntza salbu, emakumezko kirolari eta entrenatzaileei emandako zenbatekoa txikiagoa da, nabarmen.

24. taula. eta 22. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen ratioa, 2013an

	Emakumeak	Gizonak	Mistoa
--	-----------	---------	--------

Kirolariak	4.762 €	9.055 €	
Entrenatzaileak	2.250 €	7.141 €	
Kirol-taldeentzako laguntzak	29.000 €	30.000 €	28.000 €

Iturria: Euskadi Kirola Fundazioaren datuak.
Erakundeak berak eginda




Banakako kirolariei emandako diru-laguntzen zenbatekoa gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat bera bada ere, ekipoentzako bikaintasunezko kirol-proiektuek balantza desorekatzen dute. Emakumezkoen lan-ekipoak ugari dira (17 eta 18 emakume bitartean plantillan) eta gizonezkoen ekipoak 3 edo 4 gizonek osatutako nukleoak dira. Beraz, sexuaren araberako ratioak behera egiten du, nabarmen, emakumezkoen kalterako.

Euskadi Kirola Fundazioak ere babes pribatua lortzen du bere kirolarientzat. Aparteko finantzaketa erakundearen bidez eramaten da, kirolari guztien kasuan. Politika hori emakumeentzako onuragarria da; izan ere, merkatu librean askoz ere zailagoa da beraiantzat kirol-babesa lortzea.

Kirol-federazio batzuek ere diru-sarrerak bideratzen dituzte beren goi-mailako kirolariei laguntzeko, baina ez dugu datu errealik, nahiz eta esperientziak adierazten duen emakumezkoek egiten duten kirolari ematen zaion federazioaren aldetiko laguntza askoz ere txikiagoa dela.

Beraz, emakume asko, nolabait, laguntza publikoen mende daude, beren kirol-karrera garatu ahal izateko.

 Baiezta daiteke EAEko goi-mailako kirolaren kasuan, gizonek finantzaketa bikoitza edota hirukoitza lortzen dutela: alde batetik, kirol profesionala liga profesionalen bidez finantzatzen da, eta amateurra erakunde publikoen bidez, eta, bestetik, kirol-federazioek eta babesle pribatuek ematen duten finantzaketa dago. Emakumeen kasuan, ordea, finantzaketa ia eskusiboki publikoa da, zirkuitu profesionaletan noizean behin bakarrik parte hartzen baitute eta federazioetan ez baitago emakumeekiko gizonezkoekiko dagoen iritzi bera.


4.3. Enplegua eta profesionalizazioa

Jarraian, kirol-arloari lotutako profesionalizazioaren eta enpleguaren inguruko datuak aurkezten dira, gai garrantzitsua, izan ere, kirola egiten duten pertsona askok, gero, arloari lotutako lan-bizitzak proiektatzen dituzte.

25. taula. eta 23. grafikoa: EAEko sektore publikoko kirol-prestakuntzetako irakasleak. 2013/2014 ikasturtea

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
JF eta Kirolaren Gradua	20	33	53
Lehen Hezkuntzako Gradua - GH.	8	8	16
Araubide bereziko irakaskuntzak	1	23	24
Kirolaren Euskal Eskola	4	18	22
GUZTIRA	33	82	115

*Iturria: Zuzendaritzaren datuak
Erakundeak berak eginda*



Sektore publikoan, oro har, sartzeko ezaugarriak kontuan hartuta, emakumeen proportzioa sektore pribatuan baino handiagoa izaten da. EAEko sektore publikoko kirol-prestakuntzetan, joera bera da.

Zerrendatutako prestakuntzen lanbide-irteerak kontuan hartuta, emakumeen presentzia gutxitu egiten da kirol-prestakuntza zenbat eta zehatzagoa izan eta zenbat eta modalitate bakarrean zentratuago egon (emakumezko irakasleen % 5etik behera araubide bereziko irakaskuntzetan). Halaber, Gorputz Hezkuntzako Lehen Hezkuntzako Graduko irakasleen berdintasunezko proportzioa nabarmendu behar da, adingabeen irakaskuntzetara bideratutako lanbideek daukaten feminizazioa dela eta.



Edonola ere, gizonezkoen presentzia (% 70) oraindik ere handiagoa da kirol-prestakuntzako irakasleen artean emakumeena (% 30) baino.

4.4. Emakumezkoen kirolaren tratamendua komunikabideetan.

Emakumeetan eta kirolean espezializatutako foroetan, ados agertzen dira honetan: komunikabideek ez dute behar bezala erakusten emakumeek egiten edo ikusten duten kirolaren kalitatea eta kopurua. Eta ez dute aitortzen, bestalde, emakume kirolarien parte-hartze maila.

Kirol-baliabideetan emakumeek duten babesak desegokia eta selektiboa da, eta, kasu askotan, genero-estereotipoak indartuta edo beren lorpenak gutxietsita aurkezten dira. Europa mailan edo mundu-mailan kirol-erakundeen barruan genero-berdintasunerako lanean espezializatutako elkarteetan, besteak beste, European Womens' Association-en eta International Working Group on Women and Sport-en, kezkatuta daude emakume kirolariek beren sexualitatea nabarmendu behar dutelako beren kirol-lorpenak komunikabideetan ateratzeko, errendimenduaren eta kirol-emaitzen gaineko arreta desbideratuz.

Emakumeek egiten duten kirolari ematen zaion babesik eza edo babes urria eta okerra funtsezkoa da kirol-industriarako maila globalean, eta ez bakarrik kirol-jardueretan dauden emakumeentzat. Komunikabideetan ordezkariak orekatuagoa izateak aukera emango lioke kirol-industriari bere potentzial guztia garatzeko. Emakume kirolariak prentsan, irratan eta telebistan babestea eta ordezkaria ezinbestekoa da enpresa babesleak erakartzeko, bai eta publiko ikuslea eta kirola finantzatzeko beste modu batzuk ere. Zehatzago, babes mediatikorik ezak baldintzatu egiten ditu, nabarmen, emakumeek egindako kirolaren merkataritza-aukerak, eta biltzeko gaitasunean du eragin nabarmena. Ondorioz, emakumezkoen kirola mugatuta dago, hasieratik, zenbait kontutarako diru-laguntzak lortzeko, besteak beste, entrenamendu espezializatuetarako, nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko edo beren gaineko publizitatea egiteko. Paradoxikoki, emakume kirolariek jasaten duten kirol-arloko ezegonkortasuna, komunikabideek horren erantzukizun handia dutelarik, komunikabideek beraiek emakumeek egiten duten kirola ez babesteko argudiatzen dutena da (publiko gutxi, interes falta, instalazio txarragoak etab.).

Komunikabideek emakume kirolariei ematen dieten babes mugatuak, halaber, modu negatiboan eragiten du neska eta emakume kirolarientzako eredu eta erreferente positiboak egoteko orduan, eta horrek beste neska edo emakume batzuen motibazioa desagerraraz dezake eta/edo etsiaraz ditzake kirol-jardueretan jarduteko orduan, beste batzuen lorpenez ikasteko aukera kentzen ari baitzaie.

26. taula: Emakumeen presentzia ETBren kirol-programetan, 2011. urtean

Eskuragarri ditugun datu bakarrak 2011koak dira.

Emakumeen presentzia ETBren edozein kirol-programatan	
Kirol-albisteen kopurua	379 ETB1eko eta ETB2ko albistegietan
"BAT to London"en erreportajeak	13 6 programatan

"Zu kirolari"ren erreportajeetan	91	40 programatan
Kirol-emankizunak	33	Nabarmentzekoa da 2 hilabete egon direla bat bera gabe

Iturria: EITBko kirol-atalak emandako datuak
Erakundeak berak eginda

Ez ditugu ezagutzen gizonezkoek kirol-programazioan izan duten presentziari buruzko datuak, analisi erkatzailea egiteko eta emakumeei buruzko datu horiek zer esan nahi duten neurtzeko. Era berean, interesgarria izango da hainbat urtetako datuak eduki ahal izatea, aurrerapenen inguruko jarraipenari buruzko luzetarako azterketa egin ahal izateko.

Kontuan hartuta EITB Euskadi Kirola Fundazioaren patronoa dela, azken bi urteotan kontratua garatu da Euskaltelekin, euskal erakunde publikoan emakumezkoen kirolaren emankizuna areagotzeko (hockeyko Real Sociedaden eta eskubaloiko Akaba Bera Beraren 9 partida eta telebistako bi spot). Fundazioak doan lagatzen dizkio EITBri kirolarien irudien gaineko eskubideak erabilera publikorako eta, gainera, emakumezko kirolariek emandako prentsaurrekoen kopuruak ere gora egin du.

Orotariko euskal prentsan eta kirol-informazioari buruzko aldizkarietan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta tratamenduari buruz Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eginiko azterketan, 2013ko uztaillean aurkeztutakoan, egiaztatzen da emakumezkoen kirolari buruzko informazioa jasotzen duten albisteen ehunekoa guztizkoaren % 5,9 baino ez dela –albiste horietan emakumezkoen ekipoak, kirolariak edo kategoriak aipatzen dira– edo, beste modu batera esanda, kirol-informazioen ia % 95 gizonezkoen kirolari edo kirolariei buruzkoa baino ez dela.

Nahiz hasieran kontrakoa uste izan, Marca kirol-egunkari nagusia ez da leku gehien eskaintzen diona emakumeen kirolari. Zehazki, Marcak astebetean argitaratutako 1.101 albisteetatik, 32 albistetan baino ez zaio emakumezkoen kirolari erreferentzia egiten. Emakumeen kirolari buruzko albiste-kopuru handiena argitaratu duen egunkaria, termino absolututan, *Mundo Deportivo* da; hain zuzen, kirol-informazioa bakarrik lantzen duen egunkarietako bat.

27. taula: Emakumezkoen kirolari buruzko albiste-kopurua prentsa idatzian (52 erregistro-egun)

Komunikabidea	Informazio-kopurua	%
Mundo Deportivo	420	27
Gara	246	16
Diario Vasco	208	13
Marca	181	12
Noticias de Gipuzkoa	146	9
El Correo (Araba)	94	6
Deia	86	5,5

Berria	72	4,6
Noticias de Álava	58	4
El Correo (Bizkaia)	40	3

Iturria: "Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua orotariko euskal prentsan eta kirol-informazioko aldizkarietan" azterlanari buruzko datuak, ASPICek Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarako 2013ko uztailean eginikoa.

Bi kirol-egunkari horiek alde batera utzi eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arloari erreparatuz gero, emaitza desberdina da, nabarmen. Guztira, 950 albiste jaso dira eta Gara da emakumeen kirolari buruzko albiste gehien argitaratu dituen egunkaria (246 albiste).


28. taula: Emakumezkoen kirolari buruzko orotariko prentsan egon diren albisteen ehunekoa (kirol-prentsarik gabe)

Komunikabidea	Albisteen %
Gara	26
Diario Vasco	22
Noticias de Gipuzkoa	15
El Correo (Araba)	10
Deia	9
Berria	7
Diario de Noticias de Álava	6
El Correo (Bizkaia)	4

Iturria: "Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua orotariko euskal prentsan eta kirol-informazioko aldizkarietan" azterlanari buruzko datuak, ASPICek Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarako 2013ko uztailean eginikoa.

Kontuan hartuta kirol-albiste guztietatik % 5,9k bakarrik hitz egiten duela edo sartzen duela emakumezkoen kirolari buruzko informazioa, azterlanak oso datu grafikoak uzten ditu, besteak beste:


- Emakumezkoen kirolari buruzko albisteen titularren % 25ek ezkutuan uzten ditu emakumeak. Alegia, kirol-albiste guztien % 4,4k emakumezkoen kirola titularrean aipatzen du.
- Emakumezkoen kirolari buruzko informazioaren % 5,9tik, % 36,7 albiste laburren katalogazioan sartzen da.

 Komunikabideek kirola ia erabat gizonezkoena den arlo dela islatu duten neurrian, mutilentzako kirolarekiko identifikazioko eredu soziala sortzen eta indartzen joan da, nesken kalterako. Hedabideek gizonezkoak gehiago ordezkatzeko eta genero-estereotipoak edo estereotipo sexistak helarazteko kirol-arloko genero-arraila iraunarazten laguntzen du, rol sozializatzaile handia baitute hedabideek. Hori dela eta, ezinbestekoa da esku hartzea. Nabarmentzekoa da komunikabideetan emakumezkoen kirolari zein denbora gutxi eskaintzen zaion, eta, eskaintzen zaionean, horren kalitatea aztertu behar da; izan ere, sarritan, ikusle gutxiko tartetan, kalitate gutxiko albistegietan ematen dira, eta horrek guztiak neska eta emakumeentzako eredu desegokiak eta urriak sortzen ditu.

4.5. Denboraren erabilerak

Denbora baliabide mugatua denez, ez da harrizkoa denborarik ez edukitzea izatea emakumeek zein gizonek ariketarik ez egiteko ematen duten arrazoi nagusia. Dena dela, denbora ez edukitze hori nabarmenagoa da emakumeen kasuan, batez ere, etxeko eta zaintzako lanen ardura beren gain hartzen dutelako gizonen baino gehiago. Esaterako, emakumeek baino ordubate gehiago hartzen dute egunero gizonen aisialdirako.


Gainera, kirol-ohituren inkestaren arabera, kirola egiten dutenen artean, gizonak dira jarduera horri denbora gehiago eskaintzen diotenak. Horrenbestez, gizonen astean hirutan edo gehiagotan egiten dute kirola, eta emakumeek, aldiz, astean behin edo bitan. Halaber, kirol-saio luzeagoak egiten dituzte gizonen. Emakumeak halako bi dira bi ordu baino gehiagok kirola egiten duten gizonak.

 Denboraren erabilerari buruzko emakumeen eta gizonen azterketa diferentzial batek, baliabide gisa eta beste baliabide batzuetara jotzeko baldintza gisa ulertuta, ageriko bidegabekeria erakusten du emakumeek aisiarako eta, bereziki, kirola egiteko duten aukerari dagokionez.

4.6. Zaintza

Era berean, zaintza beste baliabide batzuetara jotzeko baldintza gisa ulertu behar da. Hori horrela, emakumeak izatea zaintzeko kargarik gehien dutenak, gizonen eta erakunde pribatuen aldetik erantzunkidetasun sozialari dagokionez oraindik dagoen desoreka dela eta, handicap handia da oraindik emakumeek aisiarako denbora izateko.

Horren harira, adierazgarria da goi-mailako kirolariei egindako ikerlanean gizonen batek ere ez diela traba irizten aitatasunari eta zaintza-lanak uztartzeari goi-mailako kirolari izaten jarraitzeko. Aldiz, goi-mailako emakume kirolarien % 100ak adierazi zuen amatasunak eragin handia zuela bere ibilbidean. Izan ere, adierazitakoaren arabera, zaila da geratzeko unea aurkitzea goi-mailan arituz gero, haurdunaldiagatik eta kirol-maila berreskuratzeagatik baino gehiago, haurraren zaintza eta bidaiak nahiz txapelketak bateragarri egiteko aukera faltagatik. Gainera, aldi horietan laguntza eta babes ekonomikorik ez izateak eragiten duen egonkortasun ekonomiko eza jasan behar dute.

 Emakumeek lanaldi bikoitzak edota hirukoitzak izaten dituzte eta horiek, beren osasuna eta bizi-kalitatea kaltetzeaz gainera, beren kirol-jarduera ere baldintzatzen dute.

4.7. Osasuna

Kirolak eragin positiboa duenez bizi-kalitatean, beharrezkoa da pertsona guztiek kirola egin dezatela sustatzea, eta, batez ere, emakumeak horretara bultzatzea, kirol gutxien egiten dutenak baitira.

Hala ere, aintzat hartu behar da kirola egiteak ez diela berdin eragiten emakumeei eta gizonei, ez aisialdiko kirolean, ez goi-mailakoetan, batez ere, morfologia, bihotz-hodi, arnasketa eta mugimenari dagokienez. Dena dela, oraindik ere ikerlan gutxi dago gai horiei buruz, eta hori ere kirol-arloan nagusi den androzentrismoaren seinale da.

Gainera, ez dago dopinak emakumeengan dituen berariazko eraginei buruzko informaziorik; izan ere, munduan eginiko dopinari buruzko ikerketa guztietan gizonen laginak baino ez dira erabili.

Horren harira, ezin da aipatu gabe utzi kirol-errendimenduari loturiko eskakizunek, muturreko eta kontrol gabeziako kasuetan, nahi ez izan arren, osasuna kaltetu dezaketen ohiturak sor ditzaketela; esaterako, dopin sustantziak kontsumitzea, elikadura-nahasmenduak, bigorexia, eta abar. Horiek guztiak genero-ikuspegitik aztertu beharko lirateke.

Azkenik, aipatu behar da, oro har, kirol-ekintzarako berariazko osasun-azterketak egiteari buruzko kontzientziazio-maila oso txikia dela. Izan ere, eta kirol-ohiturei buruzko inkestaren arabera, kirol-ekintzaren bat egiten duten lau pertsonetatik batek baino ez du osasun-azterketaren bat egin. Emakumeen ehunekoa (% 14) gizonena (% 30) baino txikiagoa da.



Beharrezkotzat jotzen da honi ekitea, emakumeen artean kirol-jarduera sustatzeko, beren bizi-kalitatearen eta osasunaren funtsezko alderdi gisa.

Kirol-arloko sexu-jazarpen eta abusuak genero-harremanetako desberdintasunaren eta botere-abusuaren ondorio dira; hori dela eta, diagnostiko honetan azaletik aztertzen da.


Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da tabu arazoa dela, eta horren gainean ez dagoela ikerketa askorik edo jarraipenik, eta are gutxiago estatuaren edo EA Eren hurbileko arloan. Hori horrela, abusua eta jazarpena oso gutxitan salatzen dira, baina badakigu gertatzen direla eta, berez, esaten dena baino gehiago, baina «tabua» izateak informazioa eta praktikak ezkutuan geratzea ahalbidetzen du, eta beste herrialde batzuetan ere hala gertatzen da.

Nazioarteko Batzorde Olinpikoak, Batzorde Medikoak hala eskatuta, eginiko adierazpen batek, 2007an, sexu-jazarpenak eta -abusuak kirol-maila guztietan gertatzen direla dio. Hala ere, itxura batean, maizago gertatzen da goi-mailako kirolean. Kirolarien inguruko pertsonak, botere- eta autoritate-postuetan egon ohi direnak, izaten dira egileak gehienetan, baina, beste kirolari batzuk ere izan daitezke sexu-jazarle eta -abusu egile. Gizonak emakumeak baino sarriago salatzen dira.

Sexu-jazarpen eta -abusu arriskua handiagoa da babes gutxiko egoeretan, egilearen motibazioa eta kirolariaren zaurgarritasuna (batez ere, adinagatik eta heldutasun-mailagatik) handiak direnean. Bestalde, arrisku-egoera deritze aldagelei, kirol-instalazioei, bidaiari, entrenatzailearen autoari edo etxeari eta alkohola kontsumitu ohi den ekitaldi sozialei (talde-aurkezpenak edo denboraldi amaierako ospakizunak, besteak beste).

Kirol-arloko sexu-jazarpenak eta -abusuak eragin larri eta negatiboak izan ditzake kirolarien osasun fisiko eta psikologikoan; emaitzak txarragoak dira eta bazterketa jasan ohi dute. Gaixotasun psikosomatikoak, antsietatea, depresioa, substantzien abusa eta, kasurik larrienen, auto-zauriak eta suizidioak, horiek dira osasunean eragin

daitezkeen kalteak. Kirola uztea izan daiteke erasotzaileak eragindako beste ondorio negatibo bat.

 Badirudi estrategikoa dela gai hau aztertzea eta, horretarako, prebentzio-neurriak eta esku hartzeko neurriak ikertzeko, identifikatzeko eta proposatzeko prozesuak eta estrategiak gaitzea.

6.

ONDORIOAK ETA HOBETZEKO IDENTIFIKATUTAKO ALDERDIAK

Jarraian, aurreko epigrafeetan aztertutako errealitatearen analisiaren bidez eskuratutako ondorio nagusiak aurkezten dira. Atal honetan, ondorio nagusiak laburtzeaz gainera, analisisian aurrera egin nahi da, eta, horretarako, testuinguruan jarri nahi dira aurretik genero-teoriaren prismatik bildutako datuak, argazki hori azaltzeko.

Gainera, plangintzaren bidez Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak hobekuntza-alderdiak identifikatuz egin behar duen etorkizuneko esku-hartzearen zirriborroa egin behar da. Diagnostikoak balio izan du identifikatzeko zein diren emakumeentzat, gizonen aldean, aukera-berdintasunean kirola egitea zailtzen duten faktoreak eta aukerak eta, horrela, kirolean berdintasuna sustatzeko neurrien bidez esku hartzeko ildoak zein izan behar diren identifikatu.

Kirolaren zalantzarik gabeko aktibo sozialak, pertsonentzako ohitura osasungarria eta onuragarria den aldetik, bai maila fisikoan, bai psikologikoan, estrategiko egiten du berdintasun-politiken sustapena kirol-arloan, eta are gehiago dauden desberdintasunak egiaztatzean. Gainera, kirolak, gizartearen integraziorako elementu gisa, balioen transmisioan zeregin handia duela ulertzen badugu, berdintasuna eta balioak sustatzeko hobekuntzei heltzea estrategikoa da.

Hori horrela, kirol-arloan berdintasunaren sustapena alderdi guztietara heldu behar da, dela jarduera fisikora, dela federazioen mundura eta goi-mailako kirolaren mundura, bai eta emakumeak kirolaren arloko espazio erabakitzaileetan irauteko sustapena ere.



Eskola-kirola:

Diagnostiko-elementuak:

— Aldaketak gorabehera, argi nabaritzen da oraindik badagoela genero-estereotipoei erantzuten dien kirol-jarduera, kirol-modalitatearen arabera, genero-arrail sakonak dituen, eta, horrela, argi finkatzen dira **jarduera maskulintuak eta jarduera feminizatuak**.

— Aztertutako datuetan, **neskek kirol-jarduera uzteko dagoen indize altua ikusten da**, batez ere mutilak arlo federatura igarotzen hasten diren etapa erabakitzaileetan. Neskek eskola-kirolean irauteko dagoen joera horren arrazoia, neurri handi batean, beren balioak eta beharrak gizonezkoen parametririk orokorrenen eta hegemonikoen aldean desberdinak direla da. Gizonezkoen kirol-eredua, balio zehatzak dituen, da unibertsalizatu dena, eta badirudi horri atxiki behar zaizkiola neskak, baldin eta kirola egiten jarraitu, arrakasta, aintzatespena edo onarpena eduki nahi badute. Eredu horrek ez duenez zertan kirola egiteko beren motibazioei erantzun behar, neska askok eskola-kirolean jarraitzen dute eta/edo utzi egiten dute.

Ezin dugu ahaztu, nolahi ere, adin horietan neska gazte askok exijentzia handiko goimailako eskolaz kanpoko beste jarduera batzuk ere egiten dituztela, eta beren denbora nola banatu aukeratu behar dute, beren etorkizunerako probetxugarriena zer izango den erabakita. Kalkulu pertsonal horretan eragin handia dute kirolaren bidez garatzeko eta aintzatespen ekonomikoa eta soziala izateko dituzten itxaropen urriek, baina baita generoaren sozializazioak ere, kirola beren identitatea eraikitzeko zentroan ez dagoelarik.

Nolahi ere, kirol federatua hautatzen duten nesken egoera oztopoz beterik dago; izan ere, batzuetan, klubek ez dute gaitasunik eskola-kirolean dauden neska guztiak mantentzeko, eta beraiek uste izaten dute "onek" bakarrik eman ahalko dutela jauzia eta, beraz, beraiek baztertzen dute beren burua.

Hobetzeko erronkak:

➤ Datuak ikusita, badirudi beharrezkoa dela **eskola-kirolean nesken eta mutilen egoera desberdinaren ezagutza hobetzen jarraitzea**, kirola sustatzeko politika publikoak bideratzen jarraitzeko, gorputza bizitzeko moduari lotutako balioak dituela eta kirol-lehiaketa ulertzeko beste modu bat duela ulertuta. Hori horrela, eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak egin izan duen lanarekin jarraitzeko, jarraitu ahalko da aztertzen modu berezian intereseko kontu hauek eta beste batzuk (kirola sekula egin ez duten neska

gazteen kolektiboak zergatik dauden ikusi, gazte eta emakume kirolarien esperientzia positiboak aztertu eta zabaldu, jardunbide egokiak identifikatu...).

➤ Ezagutza horretan oinarrituta, kirol-programazioak berriro bideratu beharko dira, **behar horiek guztiak , motibazioak eta nesken eta mutilen arteko desberdintasunezko itxaropenak kontuan hartuta**, diskriminazio-mota oro gainditzeko eta sarbiderako/jarraipenerako berdintasunezko baldintzak dituen kirol-jarduera sustatzeko. Eskola-kirolak ez du ñabardura sexistarik izan behar, eta kirol-jardueran dagoen bereizketa horizontala gainditzeko eskaintza dibertsifikatua izan behar du, kirol feminizatuak eta maskulinoak. Hori horrela, balioetsi egin behar da kirol-eskaintza nesken itxaropen, motibazio, interes eta beharretara egokitzen ote den jakiteko. Aldi berean, berdintasun-printzipioa bermatu behar da. Edonola ere, analisi honek kontuan izan behar du itxaropen horietako batzuk sozialki eraiki direla eta genero-parametroei ere erantzun ahal diela. Berezkotzat jotzen diren erabaki askotan sexu bakoitzari esleitutako generoaren arabera rol sozialen eragina antzematen da. Aztertu beharreko gai bat da dibertsioa eta lehiaketa orekatzeko beharra; kooperazioa eta lankidetzaren sustatzea, adiskidetasuna, berezko gaitasunak, garapen pertsonalaren hobekuntza, lehiaketa hutseko alderdiak barik.

➤ Badirudi nahitaez egin behar direla **esku-hartze bereziak zenbait adinetan (14 urte), kadeteen kategoriaren jautzia egiten denean, neskek kirol-jarduerari utz ez diezaioaten** mundu federatura igarotzen ez direnean, eta aisia-kirol baten eskaintza zabaltzea edo dibertsifikatzea, lehiarako izan behar ez duela, eta/edo kirol federatuaren irudiak aldatzea, neskei hurbiltzeko irudi ludikoagoaren bidez eta beren behar bereziak jasotzen dituzten mezuen bidez. Beste mezua batek indarra ematen du neskek kirol-jardueran irauteko edo iraunarazteko, taldeko, topaketako eta bizikidetzako jarduerak sustatuz. Eta horrek, klubaren eta federazioaren filosofia ez ezik, kirol-ekitaldi guztien antolaketa ere busti beharko luke, bai eta lehiaketa eta txapelketena ere, lehiaketa eta dibertsioa uztartuz.

➤ Klubaren baliabiderik edo eskaintzarik eza kontuan hartuta, **ikastetxeen eta klubaren arteko lankidetzaren estrategiak pentsa daitezke, ekipoak sor daitezela sustatzeko.**

➤ Lankidetzaren estrategiak **ezarri ahal dira hezkuntza-arloarekin, gorputz-hezkuntzako curriculumean baterako hezkuntzako edukiak sartzeko** (oraintsu onetsi da hezkuntza-sisteman Baterako Hezkuntzarako eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Plan Gidaria; bertan, lan berezia aurreikusten da, ikastetxeetan mintegiak antolatuz, hezkuntzako curriculumak berrikusteko) **eta aita-amekin lana sustatzeko**, gizonezkoen eta emakumezkoen kirolaren aurrean kontzeptuaren inguruan jarduteko, bai eta kirol-esparruan proposatu beharreko soluzio eta aldaketaren inguruan eta horiei eman beharreko laguntzaren inguruan, estereotipo sexistak alde batera utzita.



Kirol-irakaskuntzak:

Diagnostiko-elementuak:

— Jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako prestakuntza akademikoan emakumeen presentzia baxuagoa da, bai araubide bereziko irakaskuntzetan, bai Kirolaren Euskal Eskolan. Horrek neskak eta emakumeak kirol-jarduerarako **erreferente positiborik ezan** sakontzen du eta, jakina, sektorean emakumeen **profesionalizazioan**.

— Nahiz eta sakontasunez aztertu ez den diagnostikoan esku hartzeko beste alderdi garrantzitsurik, **irakaskuntza horietako edukiak dira**, balioak transmititzeko duten gaitasun handiagatik

Hobetzeko erronkak:

» Kirol-irakaskuntzetan emakume gehiago sartzea **bultzatu behar da**. Kirolean gero eta emakume profesional gehiago egoteak eragin biderkatzailea du, erreferente positiboak baitira. Kirol-irakaskuntzak hautatzeko orduan sexuen arteko desberdintasun hori gutxitzeak emakumeen profesionalizazioa hobetuko du, eta, horrela, bermatu egingo dira erabateko berdintasun-baldintzak arlo eta maila guztietarako sarbidean, parte-hartzean eta ordezkartzan.

Era berean, **jarduera fisikoko eta kirol-arloko profesionalen genero-ikuspegia kontuan hartzen duen** kirol-prestakuntzako eskaintza bat sustatu beharko da, indarreko legediak maila bakoitzerako ezarritako eskakizunekin bat: unibertsitateko maila, lanbide-heziketako maila, irakaskuntza teknikoaren maila eta prestakuntza iraunkorreko ikastaroen maila. Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren eskumenen arloan, zuzeneko esku-hartzeak ezarriko dira, eta Zuzendaritzaren zuzeneko eskumenak ez diren gainerako prestakuntzen lankidetzak-estrategiak planteatu ahalko dira.

» Aldi berean, kirolak pertsonen prestakuntzaren eragile gisa eta balioen transmititzaile gisa duen zeregina errazten duten estrategiak ezartzea, emakumeek eta gizonek beren xede pertsonalen eta gaitasun indibidualaren arabera garatzeko oztopo dituzten aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko.



Jarduera fisikoa-aisiakoa

Diagnostiko-elementuak:

🌀 Oro har, gizonek emakumezkoek baino kirol gehiago egiten dute. Kirol, osasun eta bizi-kalitateari buruzko ikerlanean agerian geratu da gizonek kirol-ekintzarako zaletasun handiagoa dutela. Ariketa fisikoa da aisialdiko jarduera nagusia gizonen artean. Emakumeek, aldiz, izaera sozialeko jarduerak lehenesten dituzte, kultura-jarduerak datoz gero, eta ariketa fisikoa ondoren.

— Garrantzitsua da **kirol-jardueraren motibazio diferentziala aztertzea**, eta badirudi emakumeetan osasunari, estetikari, sasoian egoteari eta beste pertsona batzuekin

harremanetan egoteari lotutako arrazoiak direla nagusi, eta, gizonetan, atsegin dutelako egitea eta, zati handi batean, lehiaketa.

Motibazio diferentzial horiek genero-faktoreak islatzen dituzte; emakumeen kasuan, beren identitatearen eraikuntza *ni* erlazionalak zehazten du, soziabilitate-faktoreek eta besteek pentsatuko dutena garrantzi handia dutela; gizonen kasuan, *nia* lorpenera bideratuta dago, eta plazera eta beren buruarenganako onarpena lortzera. Autozaintza fisikoaren eta edertasun kanonen betekizunen eragin handiagoa nabari da emakumeen kirol-ekintzan.

Lehiakortasunaren gaia zentrala da, izan ere, emakume askok ziurtatzen dute nahiago dutela lehiatzeko ez den kirola egitea, eta horrek azalduko luke, zati batean, zergatik neska/emakume askok lehiatzekoa ez den kirol-eskaintza urriaren aurrean ez duen kirol-jarduerarik egin edo zergatik egiteari utzi dion. Hori dela eta, aisiarako jarduera fisikoa nagusi izan behar da kirol-politiketan, neska/emakume askok lehiatzeko kirol hau egingo ez dutela kontuan hartuta.

Hobetzeko erronkak:

➤ **Jarraitu beharra dago emakumeen eta gizonen kirol-jarduera motibatzen duten alderdi diferentzialen azterlanean sakontzen**, bai eta egiteko duten zailtasunetan ere. Denboraren erabileren analisi guztia nagusi da.

➤ **Hobetu eta erraztu egin behar da emakumeak kirol-jarduerara sartzea** eta, horretarako, aisiarako kirol-eskaintza egokitu eta indartu egin behar da, eta dibertsifikatu, genero-estereotipoak alde batera utzita, bereizketa horizontala gainditzeko.

➤ **Kirol-baliabideak** emakumeen behar berezietara egokitzea eta, horretarako, emakumeek baliabide horiekiko duten gogobetetasun-maila hobetzea.



Kirol federatua:

Diagnostiko-elementuak:

➤ Azken urteotan gora egin duen arren emakume kirolarien kopuruak, **emakumeen kirol-lizentzia** kopuruak urriagoa izaten jarraitzen du (% 20 inguru).

➤ Gainera, federazioen mundurako hauteskondeek eta sarbideak oraindik ere genero-desberdintasunerako joera handia dute, eta **bereizketa horizontala** dago, kirol-jarduera feminizatuen edo maskulinoen arabera.

➤ Oso ibilbide garrantzitsua dago **Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren lanean kirol-federazioekin**, bai EKFBrekin, bai pilotu moduan federazio zehatz batzuekin, berdintasun-planak egiteko laguntzen bidez. Hala ere, jarduketa horiek ez dute jarraipenik izan, eta ez da egiaztatu plan horiek ezarriko eta/edo ebaluatu direnik.

— Kirol federatuaren arloa tradizio maskulinokoa da, desberdintasun biologikoen araberako **baliabideen eta materialaren eta instalazioen gutxieneko egokitzapenak** egin izanari esker emakumeak heldu direna. Oraindik ere, beste egokitzapen batzuk egin behar dira.

Hobetzeko erronkak:

➤ **Aukera-berdintasunaren printzipioa** sustatzea, kudeaketan kalitatearen eredu gisa, kirol-federazio guztien erakundearen gizarte-erantzukizunaren barruan.

➤ Federazioen kudeaketa-politikan **genero-ikuspegia txertatzea bultzatzea**. Horretarako, estrategikoa izango litzateke lanari horiekin ekitea, alderdi hirukoitzarekin – egituren egokitzapena, federazioek antolatutako jardueretan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horien komunikazio-estrategia osoa egokitzea– lan egingo luketen berdintasun-planak egiteko, diskurtsoak eta mezuak eduki ez sexistetara eta arlo federatua emakumeentzako onuragarriak direnetara egokitzeko.

Federazioek egindako kudeaketa eta eskaintza hobetzeko neurri horiek eragin kutsakorra izan dezakete, behe-mailetan eraginez –batez ere eskola-kirolari dagokionez–, edo goi-mailako kiroleko goi-mailetan eraginez; izan ere, emakumeen kirol-ibilbidea lotuta dago.



Goi-mailako kirola

Diagnostiko-elementuak:

Nolabaiteko oreka dago goi-mailako emakumezko eta gizonezko kirolarien kopuruari dagokionez.

— **Kirol profesionalaz** hitz egitean, ordea, genero-arraile handiak antzematen dira, ia ez baitago emakumerik. Hori dela eta, erakundeek (Fundazioak) emakumezkoen goi-mailari ematen dioten laguntza ia bide bakar bilakatzen da diru-laguntzarako (Fundazioak goi-mailan lehiatzen diren ia emakumezko guztiei ematen die laguntza).

— Ikuspuntu **kualitatibotik**, Federazioaren beka duten goi-mailako emakumezko kirolariek oso argi dute, haurtzarotik edo gaztarotik, kirolarien bizimodua ikasketekin bateratu behar dituztela, geroko lanbide-etorkizuna bideratzeko. **Daukaten arduraren agerian uzten dute** beren kiroleko profesionalizazio-maila txikiaren ondoriozko egonkortasun ekonomiko ezagatik eta babesle-faltagatik, bai eta lesio larriren bat edo ama izateak eragin diezaiekeen babesgabetasunagatik ere.

— Beste **desberdintasun handi batzuk** emakumeen eta gizonen arteko ehunekoetan goi-mailako kirolean **entrenatzaile eta epaile gizonezkoen eta emakumezkoen artean ikusten dira**.

Hobetzeko erronkak:

- Fundaziotik **prestakuntza paraleloaren bidezko laguntza sustatzea**, bai eta **unibertsitatearekin lankidetzan jarduketa-lankidetzako protokoloak** ezartzea ere, beren ikasketak goi-mailako kirol-jarduerarekin bateragarriak izan ahal izateko.
- **Laguntza ekonomikoa beken bidez** jarraitzea edo hobetzea eta, horretarako, beharrezkoa izanez gero, ekintza positiboko neurriak edo kuotak ezartzea.
- Lehiarako kirolean emakumeen sustapena bultzatzen jarraitzea, **bistaratzearen eta kirol- eta gizarte-aintzatespenaren bidez**. Aldi berean, lan horren bidez, erreferente positiboak sortuko dira beste emakume batzuentzat, goi-mailako kirolari gisa proiektatu ahal izateko.
- Fundazioan **bitartekotzako** eta goi-errendimenduko kirol-jardueratik **geroko laneratzera**igarotzeko lana egiten jarraitzea, erakunde edo enpresekiko harremanen bidez.
- Babesa hobetzen jarraitzea, beken bidez, babesgabeko egoera berezietan, besteak beste, **lesio larrietan edo haurdunaldian, beken luzapenen bidez**.
- **Kirol-, prestakuntza-, lan- eta kirol-bizitza uztartzeko erantzunkidetasuna sustatzen** laguntzeko jarduketak sustatzea, sexu bakoitzari esleitutako gizarte-rolak alde batera utzita.
- **Emakumezko arbitro, entrenatzaile eta epaileen egoerari buruzko analisi zehatza egitea, beren egoera diagnostikatzeko**, bai eta beren oztopoak ere, eta, horrela, diskriminazioak gainditzeko jarduketak proposatzeko.



Kirol-egiturak:

Diagnostiko-elementuak:

— Emakumeen presentzia zuzendaritzako edo erantzukizun publikoko karguetan,

kirol-erakundeetan, gizonena baino urriagoa da. Kontsultarako eta aholkularitzarako organoetan hobekuntza nabarmena egon da, eta ordezkaritza orekatua da, gaur egun indarrean dauden 4etako 3tan, Zuzendaritzak hori hala izan dadin egin duen jarduketari esker. Esperientziak adierazten du hain arlo maskulinituan, kirolaren kasuan bezala, berez, oreka horiei ez zaiela buelta ematen, izendapenetan ekintza positiboan bidez esku hartuz ez bada. Gainera, administrazio publiko den aldetik, eredu gisa jardun behar da, legea betetzeko. Arreta berezia eskaini behar zaio erakunde publikoen osakeran, emakumeek erabakiak hartzeko arloan duten presentziari dagokionez, aurrerapen gehien egon izanari. Eta hori ekintza positiboko neurriak hartu izanari –kuoten ezarpena, besteak beste– egotzi behar zaio.

— Euskal Kirol Federazioen Zuzendaritza Batzordeetan, emakumeen presentzia

baxuagoa da, erabat, eta emakumeek kirol-federazioen egitura maskulinituetara sartzeko oraindik dauzkaten zailtasunak agerian geratzen dira. Emakumerik ez dagoenez erabaki-guneetan, eta kirolaren inguruko egiturak maskulinoak direnez oso, emakumeak nahi baino astiroago heltzen dira kirolera; izan ere, aurretik aipatu den bezala, mundu hau oso ingurune maskulinitutat jotzen da.

— Nolanahi ere, gero eta emakume gehiagok betetzeak erakundeetan

erantzukizuneko postu gehiago ez du zertan ziurtatu aldaketa nahikoa dagoenik **lan-modu edo -kodeetan**, ez eta horiek emakumeen beharretara egokitzen direnik edo kirol-kudeaketan **genero-ikuspegia** sartzen denik ere.

Hobetzeko erronkak:

➤ **Erakunde publikoen** kasuan, agerikoa da Zuzendaritzaren erantzukizuna

kontsultarako eta aholkularitzarako karguetan eta erakundeetan emakumeen presentzia orekatua bermatzeko neurriak aplikatzen jarraitzea dela. Ordezkaritza orekatu hori gertatu ezin bada, arazoak aztertu eta irtenbideak identifikatu beharko dira.

➤ **Federazioaren arloaren** kasuan, arlo pribatua bada ere, administrazio publikoaren

erantzukizuna desberdintasuna ezabatzeko neurriak sustatzea da, dela araudiaren bidez, dela diruz laguntzeko, kontratatzeko edo hitzarmenatarako ildoan bidez; horietan, besteak beste, kirol-erakundeen ordezkaritza orekatuari buruzko baldintzak eta balioespen-irizpideak antzeman daitezke.

➤ Presentzia orekatuak bermatzeaz gainera, jarraitu behar da urratsak ematen, emakumeek arlo erabakitzaileretan **eragina izateko aukera errealak** edukitzeko (eguneroko bizitzaren alderdietan, besteak beste, ordutegiak ezartzea), eta, era berean, emakumeei laguntza emateko, zuzendaritzarako behar bezalako prestakuntza jaso dezaten eta, horretarako, zuzendaritzara heltzeko oinarritzko trebetasunak eta gaikuntzak eskura ditzaten. Batez ere, emakumeek ordezkari gisa gutxi duten arloetan eragin behar da.

➤ Era berean, pixkanaka, **genero-ikuspegia** sartzen joan behar da organo horietako erabaki-guneetan, eta, horretarako, garrantzitsua izango da estrategiak, lankidetzak eta/edo jarraibideak sortzea.



Baliabideak eskuratzeko aukera:

Diagnostiko-elementuak:

— Emakumeen kirola sustatzeko ahalegina egin arren, diru-laguntza ildoen bidezko baliabide publikoen banaketa ekitatibo eraginkorra mugatua dela eta baliabide publiko horietan monopolizazio-maila altua dagoela gizonen aldetik.

— Baietzta daiteke EAEko goi-mailako kirolaren kasuan, **gizonek finantzaketa bikoitza edota hirukoitza lortzen dutela**: alde batetik kirol profesionala liga profesionalen bidez finantzatzen da, eta amateurra erakunde publikoen bidez, eta, bestetik, kirol-federazioek ematen duten finantzaketa dago. **Emakumeen** kasuan, ordea, **finantzaketa ia esklusiboki publikoa da**, zirkuitu profesionaletan noizean behin bakarrik parte hartzen baitute eta federazioetan ez baitago emakumeekiko iritzi bera.

— Ez da **kirol-lehiaketan eta entrenamenduen antolaketari** buruzko datu zehatzik lortu, baina, beste azterketa batzuen bidez egiaztatu da erakundeetako erabakien bidez, oro har, emakumeei instalazio txarragoak esleitzen zaizkiela (kontserbazioa eta argiztapena txarragoa, prestazio gutxiago eta urrunago), bai eta ordutegi deserosoagoak eta entrenamendurako eta arbitrajarako prestakuntza gutxiagoko langileria ere.

Gizonen kirol-jarduerak, batez ere modalitate ezagunenei dagokienez, onarpen sozial zabal eta luzea duenez, mota guztietako baliabideak jasotzen ditu lehenespenez. Ordea, emakumeek bigarren mailako lekua betetzen dute baliabide horien banaketan.

— **Kirol-sektoreko enplegetara** sartzeari eta profesionalizazioari dagokienez, kirol-prestakuntzetako irakasleei buruzko datuak baino ez dira jaso, eta, kasu honetan ere, gizonezkoen presentzia emakumeena baino handiagoa da (% 70-% 30).

— **Denboraren erabilerak**, baliabide gisa ulertuta, agerian uzten ditu genero-desberdintasunak, horrek emakumeen eta gizonen eguneroko jarduera guztiak zeharkatzen dituela kontuan hartuta, baina, modu zehatzean, bidegabekeria nabarmena dakar, emakumeek aisiarako duten denborari dagokionez eta, bereziki, kirol-jarduerarako. Emakumeek izaten duten lan-kargarik handiena beraiek aisiarako jardueretan baliatzen duten denbora laburragoan eragiten du, batez ere.

— Emakumeak izatea **zaintzeko** kargarik gehien dutenak, gizonen eta erakunde pribatuen aldetik erantzunkidetasun sozialari dagokionez oraindik dagoen desoreka dela eta, handicap handia da oraindik emakumeek aisiarako denbora izateko eta, beraz, kirola egiteko oztopo.

— Jakina, kirol-jarduerak aukera ematen du **bizi-kalitatea eta osasuna** hobetzeko mailetara iristeko. Hori horrela, oraindik kirol-errendimenduaren eta dopinaren inguruan generoari dagozkion desberdintasunei buruzko mapaketa zehatzagoa egin behar dela ikusten da. Era berean, badirudi egiaztatu egiten dela berez kirola egitean medikuen azterketak egiteko kontzientziazio-maila zorrotzagoa dela emakumeen artean.

Hobetzeko erronkak:

- Hori horrela, botere publikoen erantzukizuna berriz ere da desberdintasun horiek ezabatzeko neurriak ezartzea. Horretarako, estrategia da **diru-laguntzen ildoak egokitzea**, berdintasuneko klausulen bidez. Diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarriek jaso dezakete erakunde eskatzaileek benetako berdintasuna lortzeko eginiko jardueren balioespena, eta, federazioen kasuan, emakumeek duten parte-hartze mailari buruzko balioespen-irizpideak. Beste kontu estrategiko bat da balioespenerako eskakizun edo irizpide gisa berdintasunaren sustapena egiaztatzea, berdintasun-plana diseinatzeko konpromisoaren bidez.
- Gainera, interesgarria da ekintza positiboak lehenestea, mistoak edo emakumezkoenak baino ez diren **nazioarteko ekitaldiak sustatzeko eta/edo antolatzeko**.
- Interesgarria izango da emakumeek eta gizonek **baliabideetara jotzeko duten aukerei buruzko analisian sakontzen** jarraitzea, batik bat, kirol-lehiaketak antolatzeari, entrenamenduei, kirol-instalazioak, ordutegiak eta arbitrajearen prestakuntza esleitzeari, hautaketa absolutuei... dagokienez.
- Kirol-jarduera eta bertara jotzeko aukera demokratizatzeko, **denborak eta erantzunkidetasunak berdintasunez banatzeko estrategiak ezarri behar dira**.
- Emakumeen artean kirol-jarduera sustatzeak, bizi-kalitaterako eta osasunerako oinarriko alderdi gisa, **aurretiko ezagutza behar du, genero-ikuspegiarekin**, alderdi horien gainean, sustapen hori behar bezala bideratzeko.



Komunikabideak:

Diagnostiko-elementuak:

➤ Komunikabideek kirola ia erabat **gizonezkoena den arlo** dela islatu duten neurrian, mutilentzako kirolarekiko identifikazioko eredu soziala sortzen eta indartzen joan da, nesken kalterako. Nolanahi ere, kirol-arloan gizonek hainbat eredu sozial dituzten arren, eredu horiek ez dira edozein kirolerakoak, gizarte-rol maskulinoei loturikoak baizik. Ondorioz, rol horiek apurtu eta aurre-ezarritako ereduak ez jarraitzea oso zaila gertatzen zaie erabaki hori hartzen dutenei.

Hedabideek gizonezkoak gehiago ordezkatzeko eta genero-estereotipoak edo estereotipo sexistak helarazteak kirol-arloko genero-arraila iraunarazten laguntzen du, rol sozializatzaile handia baitute hedabideek.

— Nabarmenezkoa da komunikabideetan **emakumezkoen kirolari** zein denbora gutxi eskaintzen zaion, eta, eskaintzen zaionean, horren kalitatea aztertu behar da; izan ere, sarritan, ikusle gutxiko tarteetan, kalitate gutxiko albistegietan ematen dira, eta horrek guztiak neska eta emakumeentzako eredu desagokiak eta urriak sortzen ditu. Komunikabideek emakume kirolariei ematen dien tratuei buruzko genero-estereotipoen errepikapena nabarmendu behar da. Emakume kirolariak **komunikabideetan ez agertzeak** emakumeen parte-hartzea eta etorkizun-aurreikuspenak kaltetzen ditu. Era berean, erreferentziatzko emakume entrenatzaile, epaile eta kudeatzaileak eza nabarmena da, eta horrek emakume kirolarien ibilbide profesionalean eragin negatiboa izango du.

— Gainera, bereziki kezkatzekoa da komunikabideetan emakumeek kirolean duten presentzia urria, **erabat sexistak diren kazetaritza-jarduerak** antzematea; izan ere, emakume kirolariak irudi eta mezuen bidez aurkezten dira, bai eta sexu-erakunde bidez ere eta, sarritan, alderdi teknikoak eta kirol-alderdiak alde batera uzten dira. Emakumea nabarmentzen dute kirolaria baino gehiago, sarritan, eta emakume kirolariak ikono erotiko gisa aurkezten dituzte gehiago, kirol-idolo baino. Komunikabideak eta publizitatea direla medio, kirol-babesleek emakume kirolari askoren erakargarritasun sexuala ustiatzeari ekiten diote, beren kirol-lorpenak alde batera utzita.

— Diagnostikoan zehatz aztertu ez den alderdi bat dago, izan ere, ez da plan honen helburua maila horretan esku hartzea, baina ondorioen atal honetan, hala ere, aipatu egiten da, kirol-arloan emakumezkoen erreferente gutxiago egoteari ere eragiten diolako: **kirol-arloko informazioaren inguruko enpresetan erantzukizuna duten emakumeen edo emakume kazetarien presentzia baxua** kirol-arloko erredakzioetan.

— Lehiaketa-kirola kirol-ekitaldiak antolatzean eta horien gaineko komunikabideen jarraipenean oinarrituta egotea **emakumeek horiei arretarik ez eskaintzearen** arrazoia izan daiteke.

— Ezin dugu ahaztu, komunikabideez gainera, **kirol-erakundeek komunikazioaren arloan erantzukizuna dutela** eta, beraz, emakume kirolarien presentzia berdintasunezko irizpideen eta irizpide ez sexisten arabera bermatzeko ardura dutela. Hori horrela, federazio batzuek, kirola erakargarriago bihurtzeko eta emakume kirolariak femeninoagoak izan daitezen, arropa labur eta estuak erabiltzeko agintzen diete jokalariei. Joera hori matxista da, kirola egiteko deserosoa izateaz gain. Gainera, zenbait kirol-ekitalditan, automobilismoan, saskibaloian eta/edo txirrindularitzan, emakumea kirolariak animatzeko eta/edo zoriontzeko erabiltzen dira, emakumea objektu sexuala bihurtuz. Hori indartu egiten da balio sexisten transmisioan.

. **Hobetzeko erronkak:**

➤ Komunikabideek **emakumeen presentzia** islatu behar dute kirol-arlo guztietan, eta, horretarako, beharrezkoa bada, emakumezkoen kirolarentzako espazioak **gehitu**. Balioak transmititzeko eragile eraginkor dira eta, hori dela eta, komunikabideek kirolean **estereotipo sexistak apurtzea, berdintasunezko irudiak transmititzea, emakumeenak eta gizonenak, pluralak**, beharrezkoa da. Zehazki, emakumeekin irudi positiboa sustatu behar da, dibertsifikatua, genero-estereotiporik gabea eta arrakasta pertsonaleko,

profesionaleko eta sozialeko eredu gisa. Horretarako, komunikabide publiko eta pribatuekin lankidetzak-estrategiak diseinatu ahalko dira. Lehentasunez, EITBrekin lankidetzak ezar daitezke, erakunde publiko den aldetik, kontuan hartuta, gainera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatzen duen berdintasuneko plangintzan parte hartzen duela eta bere Berdintasun Plana ere baduela.

- Lankidetzak horien esparruan, kirol-arloko langile informatzaileentzako **kode deontologikoak** hartzea susta daiteke, edukia berdintasun-printzipioari jarraiki emateko konpromisoa har dezaten.
- Era berean, **hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexistak** sustatu beharko dira, eta, horretarako, material orientatzaileak egin eta/edo daudenak zabaldu. Komunikabideetan ere hizkera ez-sexista erabiltzea.
- Lankidetzak-estrategiak ezarri ahalko dira, komunikabideek berdintasuna sustatzeko eta kirol-arloan ere indarkeria sexistarekin amaitzeko **erakundeko kanpainen** parte hartzeko.
- Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren, kirol-erakundeen eta komunikabide pribatu eta publikoen arteko **koordinazioa** sustatu ahalko da, emakume kirolarien presentzia ez-sexista eta ez-estereotipatu handiagoa bermatzeko komunikabideetan.
- **Babesek** estereotipo sexistarik ez izatea lortzea.



Sexu-jazarpena eta -abusua:

Diagnostiko-elementuak:

Kiroleko sexu-jazarpena eta -abusua sexu-genero sistematik ondorioztatutako **desberdintasunen** eta **botere erlazioen adierazpen** bat gehiago dira. Arrisku-baldintza bereziak gertatzen dira, langile teknikoan eta kirolarien arteko botere-harreman ugari arloa dela kontuan hartuta eta, gainera, are gehiago larriagotzen da egoera, gorputzaren trataerak kirol-jardueran duen garrantziagatik. Botere-harreman horietako askok itxura sexista har dezakete.

➤ Lehenengo eta behin, nabarmendu behar da **tabu** bat dela eta ez dagoela ikerketa gehiegi horren inguruan. Hori horrela, gutxitan salatzen da. Beraz, arazoa ez da batere ezagutzen, eta ez dago jurisprudentziarik eta prebenitzeko, antzemateko, jarraipena egiteko eta zehatzeko tresnarik.

➤ Sexu-jazarpena eta -abusua **edozein kiroletan eta edozein mailatan** gertatzen dira, nahiz eta sarriago gertatzen den eliteko kirolean. Kirolarien inguruko pertsonak, **botere- eta autoritate-postuetan** egon ohi direnak, izaten dira egileak gehienetan, baina, beste kirolari batzuk ere izan daitezke sexu-jazarle eta abusu egile. Sexu-

jazarpena eta -abusua jasateko arriskua handiagoa da **babesik ez dagoenean** (adina, heldutasuna).

➤ **Ondorio larriak izan ditzake osasun fisiko eta psikologikoan**, eta eragin zuzena du **abandonuan**.

Hobetzeko erronkak:

➤ Gaiari buruzko **ikerketa, identifikazioa eta jarraipena sustatu behar dira**, tabu izaera hori zabaltzeko, bai eta abusuzko praktika horiek duten eragina ebaluatzeko ere, eta gertatzen dena agerian uzteko, arazoa dimentsionatzeko, etorkizunean esku-hartzeak hobetu ahal izateko. Hori horrela, garrantzitsutzat jotzen da tipifikatzea zer ulertzen den sexu-abusuaz eta jazarpenaz kirol-arloan.

➤ Modu paraleloan, kirol-eragileen artean **prebentzio-politikak** sustatu behar dira, batez ere arrisku eta ahultasun handiagoko arloetan (etxetik urrun diren ekitaldi eta lehiaketak, bidaiak, aldagelak, espazio informalak, harremanak...). Neska eta emakumeentzako maila guztietan kirol-arlo seguruak sortu behar dira.

➤ **Sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea** kirol-munduan tartean diren helduen artean, kasuak prebenitzeko eta antzemateko, bai eta esku hartzeko urratsak emateko ere.

➤ Federazioek **lanean sexu-jazarpenari buruzko legeria/protokoloak aplika** ditzatela sustatzea, hala badagokio, kontratu-harremana dagoen pertsonen artean. Dagokion zehapen- eta diziplina-jarraipena ziurtatzea.

➤ Beste alde batetik, federazioetan, lan-harremanik ez dagoen kasuetan, **protokolo eta kode etikoak** sortzea eta zabaltzea kirol-arloko sexu-jazarpenaren eta -abusuaren aurka eta horien aplikazioa kontrolatzea. Hori horrela, funtsezkoa izango da horietako langile teknikoak sentsibilizatzea eta/edo prestatzea, bai eta emakume kirolariei eta beren familia-inguruari arriskuez, identifikazioaz eta baliabide horiez ohartaraztea ere. Dagokion zehapen- eta diziplina-jarraipena ziurtatzea.

➤ Kirol-arloan egiten den sektoreko **araudian/erregelamenduan/plangintzan/programazioan sexu-jazarpenaren eta abusuaren prebentzioa egokitzea eta/edo sartzea** sustatzea, kirol-federazioak lehenetsiz. Zehapen-prozedurak estandarizatzeko lana egin daiteke, bai eta gai horren inguruko debekuen ere.

Jarraian, diagnostiko honen bidez identifikatutako ondorio eta erronken laburpena aurkezten da:

LABURPENA		
	ONDORIOAK	ERRONKAK
ESKOLA KIROLA	<ul style="list-style-type: none"> * Bereizketa horizontalaren maila handia: jarduera maskulinoak eta jarduera feminizatuak. * Nesken aldetik kirol-jardueraren abandonu indize altua, 	<ul style="list-style-type: none"> » Eskola-kirolean nesken eta mutilen egoera diferentzialaren gaineko ezagutza hobetzea eta/edo horretan sakontzea. » Eskola-kirolaren programazioetan berrorientatzea, nesken eta mutilen arteko behar, motibazio eta itxaropen diferentzial horiek guztiak kontuan hartuta. » Adin batzuetan esku-hartze bereziak diseinatzea, neskek kirol-jarduera egiteari ez uzteko. » Ikastetxe eta klubetan lankidetzak-estrategiak sustatzea, bai eta baterako hezkuntzako edukiak sartzeko ere gorputz-hezkuntzako curriculumean.
KIROL IRAKASKUNTZAK	<ul style="list-style-type: none"> * Emakumeen presentzia txikiagoa jarduera fisikoari eta kirol jarduerari loturiko prestakuntza akademikoan (erreferenteak falta dira eta emakumeek profesionalizatzeko txikiagoa dute). 	<ul style="list-style-type: none"> » Kirol-irakaskuntzetan emakume gehiago sar dadin bultzatzea. » Genero-ikuspegia jasotzen duen kirol-arloko prestakuntza-eskaintza sustatzea
JARDUERA FISIKOA-AISIAKOA	<ul style="list-style-type: none"> * Oro har, gizonak emakumezkoek baino kirol gehiago egiten dute. * Kirol-jardueretarako motibazioa desberdina da. Emakumeen kasuan, itxurari eta osasunari loturiko alderdiak nagusitzen dira eta gizonen kasuan, ongi pasatzeari loturikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> » Emakumeak eta gizonak kirola egiteko motibatzen dituzten alderdi diferentzialen azterketan sakontzen jarraitzea » Emakumeei kirol-jardueran aritzeko hobekuntzak eta erraztasunak ematea » Kirol-baliabideak gizon eta emakumeen behar diferentzialetara egoki daitezen sustatzea

KIROL FEDERATUA

* Emakumeen kirol-lizentzien kopuruak txikiagoa izaten jarraitzen du.

* Kirol-jarduera feminizatuetan edo maskulinituetan bereizketa horizontal handia dago.

» Aukera-berdintasunaren printzipioa sartzea, federazioen gizarte-erantzukizun korporatiboaren barruko kudeaketan kalitatezko eredu gisa, bai eta genero-ikuspegia ere, federazioen kudeaketa-politiketan. Estrategikoa da berdintasun-planak egin, ezarri eta horien jarraipena egin dadin sustatzea.

GOI MAILAKO KIROLA

* Nolabaiteko oreka dago goi-mailako emakumezko eta gizonezko kirolarien kopuruan.

* Dena den, kirol profesionalean genero-arraile handiak hautematen dira, emakumeen presentzia txikiagoarekin.

* Goi-mailako kirolariak asko kezkatzen dira kirol-jarduerak dirauen bitartean duten ezegonkortasun ekonomikoarengatik eta, etorkizunera begira, laneratzearengatik.

* Gizonezko eta emakumezko entrenatzaile eta epaileen artean desberdintasun asko daude.

» Laguntza sustatzea, unibertsitatearekin batera antolatutako prestakuntzaren eta jarduketa-lankidetzaren bidez, emakumezko bekadunen ikasketak eta goi-mailako kirol-jarduera bateragarriak izan daitezzen.

» Diru-laguntza beken bidez jarraitzea eta (edo hobetzea eta, horretarako, beharrezkoa izanez gero, ekintza positiboko neurriak edo kuotak ezartzea).

» Kirolean eta gizartean emakumeak ikusaraztea eta aintzatezea.

» Babesgabeberia bereziko egoeretan beka duen babesa luzatzea (lesio larria edo haurdunaldia).

» **Erantzunkidetasuna sustatzea, kirola, prestakuntza, lana eta kirola kontziliatzeko**

» Emakume arbitro, entrenatzaile eta epaileen egoera bereziki aztertzea.

» Laneratzean bitartekotza egitea eta hura sustatzea, kirol-erakundeekiko edo enpresekiko harremanen bidez.

KIROL EGITURAK - BOTERE ORGANOAK

- * Emakumeen presentzia urriagoa zuzendaritzako karguetan edo erantzukizun publikoko karguetan.
- * Emakumeen presentzia urriagoa euskal kirol-federazioetako zuzendaritza-batzordeetan.

- » Arlo publikoan kontsultarako eta aholkularitzarako karguetan eta erakundeetan emakumeen presentzia orekatua bermatzen duten neurri zehatzak aplikatzen jarraitzea.
- » Emakumeak federazioetako zuzendaritza-batzordeetan sartzeko neurriak sustatzea (araudiaren, diru-laguntzen ildoan, kontratazio eta hitzarmenen eta zuzendaritzako trebetasunei buruzko prestakuntzaren bidez, besteak beste)
- » Organo horietan erabakiak hartzeko genero-ikuspegia sar dadin sustatzea.

BALIABIDEAK

- * Diru-laguntza ildoan bidezko baliabide publikoen banaketa ekitatibo eraginkorra mugatua da eta baliabide publiko horietan monopolizazio-maila altua dago gizonen aldetik.
- * Gizon askok zenbait finantzaketa aldi berean lortzen dituzte.
- * Emakumeak laguntza ekonomiko publikoaren mende daude ia modu eksklusiboan.
- * Antolamendu-erabakietan, emakumeei instalazio, material, ordutegi, langile tekniko eta arbitraje txarragoak esleitu ohi zaizkie.
- * Emakumeen profesionalizazioa kirol-ekintzetan ez da gizonena bezainbestekoa. Kirol-arloko prestakuntzako irakasleei buruzko datuak ematen dira.
- * Ageriko parekotasun falta dago emakumeek aisiarako eskuragarri duten denboran, batez ere, kirol

- » Diru-laguntzen bidez baliabideak banatzeko neurriak sustatzea (berdintasun-klausulak).
- > Emakumeek eta gizonak baliabideetara jotzeko dauzkaten aukerei buruzko analisian sakontzea: kirol-lehiaketak antolatzeari, entrenamenduei, kirol-instalazioak, ordutegiak eta arbitrajearen prestakuntza esleitzeari, hautaketa absolutuei... dagokienez.
- » Denboren eta erantzunkidetasunaren banaketa berdintasunean sustatzea, kirol-jarduera errazteko.
- » Kirol-jardueran genero-desberdintasunei buruz ikertzea edo horri buruzko ikerketa sustatzea, osasunari eta bizi-kalitateari dagokienez (dopina, errendimendua, sexu-jazarpenak osasunean dituen ondorioak...)

jardueretarako.

* Erantzunkidetasuna oraindik txikia izateak eragin negatiboa du emakumeek aisiarako eskuragarri duten denboran eta, hortaz, oztopo bat da kirol-jarduerarako.

* Genero-desberdintasunei buruzko ezagutza falta da kirol-jardueran, osasunari eta bizi-kalitateari dagokienez (dopina, errendimendua, jazarpena...)

HEDABIDEAK

Hedabideek kirola, nagusiki, arlo maskulino gisa plazaratzen dute, eta, horrela, mutilak kirolarekin identifikatzeko eredu sozial bat sortu eta indartu dute.

* Emakume kirolariak

komunikabideetan ez agertzeak emakumeen parte-hartzea eta etorkizun-aurreikuspenak kaltetzen ditu.

* Kazetaritza-jarduera batzuk erabat sexistak dira; emakume kirolarien irudi eta mezu sexistak ematen dira, eta, askotan, alderdi teknikoak eta kirol-alderdiak alde batera uzten dira.

»» Komunikabideetan emakumeen presentzia areagotzea eta estereotipo sexistekin amaitzea eta, horretarako, berdintasunezko irudiak, emakumeenak eta gizonenak, pluralak, ematea.

»» Langile informatzaileentzat kode deontologikoak har daitezen sustatzea

»» Hizkeraren eta irudiaren erabilera ez-sexistak sustatzea eta, horretarako, materialak sortzea.

»» Komunikabideekin lankidetzak-estrategiak ezartzea eta, batez ere, EITBrekin.

»» Komunikabideek erakundeen kanpainen parte har dezaten sustatzea

SEXU JAZARPEN A ETA ABUSUA

* Kirolek sexu-jazarpena eta -abusua sexu-genero sistematik ondorioztatutako desberdintasunen eta botere-harremanen adierazpen bat gehiago dira.

* Tabu bat da eta ez dago ikerketa gehiegi horren inguruan.

* Edozein kiroletan eta edozein mailatan gertatzen dira, nahiz eta sarriago gertatzen den eliteko kirolean. Kiroletan inguruko pertsonak, botere- eta autoritate-postuetan egon ohi direnak, izaten dira egileak gehienetan, baina, beste kirolari batzuk ere izan daitezke sexu-jazarle

eta -abusu egile. * Sexu jazarpen eta -abusuak jasateko arriskua handiagoa da babesik ez dagoenean.

* Ondorio larriak izan ditzake osasun fisiko eta psikologikoan, eta eragin zuzena du abandonuan.

» Ikerketa, identifikazioa eta jarraipena sustatzea.

» Kirol-agenteen artean prebentzio-politikak sustatzea.

» Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea.

» Protokolo eta kode etikoak sortzea, eraso eta abusuekin amaitzeko

» Federazioetan laneko sexu-jazarpenaren legedia aplikatu dadin sustatzea, lan-harremana dagoenean.

» Berriazko prestakuntza erraztea

ERANSKINA: TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

TAULA ETA GRAFIKOAK	1.
1. taula. eta 1. grafikoa: Sexuaren araberako parte-hartze globala Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan (2005-2013)	4 - 5
2. taula: Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako parte-hartzea, sexuaren eta diziplinaren arabera. 2013. urtea.	6
3. taula: Hiru lurralde historikoetako eskolarteko kirol-programetako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)	7
2. grafikoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)	8
3. grafikoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)	8
4. grafikoa: Arabako Foru Aldundiaren eskolarteko kirol-programako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea)	9
5. grafikoa: EAEko eskolarteko kirol-programetako parte-hartzearen bilakaera, adin-kategorien arabera (2006. urtea).	9
4. taula: Araubide bereziko kirol-irakaskuntzetako ikasleak. 2012/2013 ikasturtea	10
6. grafikoa: Araubide bereziko kirol-irakaskuntzetako ikasleak. 2012/2013 ikasturtea	11
5. taula: Kirolaren Euskal Eskolaren jardueretako parte-hartzea, 2012	11
7. grafikoa: Kirolaren Euskal Eskolaren jardueretako parte-hartzea, 2012	12
6. taula: Kirolaren gaineko interes-maila, adinaren arabera, zenbat egiten den gorabehera. 2010. urtea	13
7. taula: Kirol-jardueraren maila, sexuaren arabera. 2010. urtea.	13
8. taula: Kirol-jardueraren maila, sexuaren eta adinaren arabera. 2010. urtea.	14
9. taula: Kirola egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2010. urtea.	15
8. grafikoa: Kirola egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2010. urtea.	15
10. taula: Kirol-jarduera uzteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2010. urtea.	16
9. grafikoa: Kirol-jarduera uzteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2010. urtea.	16
11. taula: Euskal kirol-federazioetako lizentziak, sexuaren eta diziplinaren arabera. 2012. urtea.	18

10. grafikoa: Emakumeen lizentzia federatuen kopuruaren bilakaera. 2005. urtetik 2012ra.	19
12. taula: Euskal Herrikoak bertakoak diren hiru kiroletan emakumeen kirol-lizentzia federatuen proportzioa (2005-2012)	19
11. grafikoa: Emakume kirolarien arrauneko, euskal pilotako eta herri-kiroletako lizentzia federatuen proportzioa. 2005. urtetik 2012ra.	20
13. taula: 2010. urtetik gaur egun arte goi-mailako aitortutako kirolari, tekniko eta epaileak.	21
12. grafikoa: 2010. urtetik gaur egun arte goi-mailako aitortutako kirolari, tekniko eta epaileak.	21
14. taula: Euskadi Kirola Fundazioaren 2013ko laguntzak jaso dituen pertsona- eta talde-kopurua	22
13. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioaren 2013ko laguntzak jaso dituen pertsona- eta talde-kopurua	23
15. taula: 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetako euskal partaidetza	24
14. grafikoa: 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetako euskal partaidetza	24
16. taula: Batzordeen eta aholku- eta aholkularitza-organoen eraketa.	26
15. grafikoa: Batzordeen eta aholku- eta aholkularitza-organoen eraketa.	26
17. taula: Euskal Federazioen Zuzendaritza Batzordeetako parte-hartzea. 2011. urtea.	27
16. grafikoa: 2012ko euskal kirol-federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen ratioa, sexuaren arabera	29
18. taula: 2012an nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-laguntzen datuak	30
17. grafikoa: 2012an nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-kopuruak	31
18. grafikoa: 2012an nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko emandako diru-kopuruaren ratioa sexuaren arabera.	31
19. taula: Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntza kopurua, 2012. urtea	32
19. grafikoa: Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntza kopurua, 2012. urtea	32
20. taula: Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntza kopuruak, 2012. urtea	33
21. taula: 2012an kirol-lehiaketa ofizialak antolatzeko emandako diru-kopuruaren ratioa sexuaren arabera.	33
20. grafikoa: 2012an kirol-lehiaketa ofizialak antolatzeko emandako diru-kopuruaren ratioa sexuaren arabera.	33
22. taula: Euskadi Kirola Fundazioak emandako beken onuradunen kopurua, estamentuaren eta sexuaren arabera, 2013an	34
23. taula: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen kopurua, estamentuaren eta sexuaren arabera, 2013an	35

	21. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen kopurua, estamentuaren eta sexuaren arabera, 2013an	35
	24. taula: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen ratioa, 2013an, sexu eta estamentuen arabera	35
	22. grafikoa: Euskadi Kirola Fundazioak emandako diru-laguntzen ratioa, 2013an, sexu eta estamentuen arabera	36
	25. taula: EAEko sektore publikoko kirol-prestakuntzetako irakasleak. 2013/2014 ikasturtea	37
	23. grafikoa: EAEko sektore publikoko kirol-prestakuntzetako irakasleak. 2013/2014 ikasturtea	37
	26. taula: Emakumeen presentzia ETBren kirol-programetan, 2011. urtean	39
	27. taula: Emakumezkoen kirolari buruzko albiste-kopurua prentsa idatzian (52 erregistro-egun)	40
	28. taula: Emakumezkoen kirolari buruzko orotariko prentsan egon den albiste-kopurua (kirol-prentsarik gabe)	40